



2013

Gazteen Adierazleak

EUSKADIKO GAZTEEN PANORAMIKA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de juventud y Deportes



Izenburua: Gazteen adierazleak 2013

Bilduma: Euskadiko Gazteen Panoramika

Gazteen Euskal Behatokia

Ikertaldea: Oskar Longo Imatz, Miren Bilbao Gaztañaga eta Nieves Corcuera Bilbao, SIIS, Eguía Careaga Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren lankidetzarekin

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Diseinu grafikoa eta maketazioa: Neverland, S.L.

Bilbo, 2015eko maiatza



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, lizentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu-Ez merkataritzarako-Lan eratorririk gabeko 4.0 Unported
(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es> EU)



AURKIBIDEA

0. Aurkezpena	4
1. LABURPEN EXEKUTIBOA	7
2. GAZTEEN ADIERAZLEEN PANELA	16
3. ADIERAZLEEN FITXAK	28
Demografia eta biztanleria	29
Hezkuntza	34
Enplegua eta egoera ekonomikoa	43
Emantzipazioa eta etxebizitza	66
Osasuna	76
Aisia, kultura eta kirola	91
Balioak eta jarrerak	98
4. DATU BASE INTERAKTIBOA	117



0

AURKEZPENA

Gazteriaren Euskal Behatokiak Euskadiko Gazteen Panoramika bildumari ekin zion 2007. urtean, Euskadin bizi diren gazteen egoerari buruzko oinarritzko datu estatistikoak aldian behin bilduko dituen argitalpena edukitzeko beharrari erantzuteko.

Bildumako lehen txostenean adierazitako moduan, bilduma euskal gizarteari gazteen adierazle sozial, demografiko eta ekonomiko nagusiak aldian behin ezagutarazteko xedearekin sortu zen eta, horrela, Gazteriaren Euskal Behatokiaren eginkizun nagusietako bat betetzeko, hau da, Euskadin gazteriaren errealitateari buruzko zuzeneko, nahiz zeharkako informazioa biltzea eta zabaltzea.

Hortaz, txosten honen xedea gazte euskaldunen egoera hainbat ikuspegitatik -demografia, hezkuntza, lana, ekonomia...- deskribatu eta aztertzea da eta askotariko alorrak edo gaiak kontuan hartzea, hala nola emantzipazioa, etxebizitza, osasuna, aisia, kultura eta kirola, eta baita gazteen balioak eta jarrerak ere. Horrekin guztiarekin, gazteei eragiten dieten eta gizartean duten egoera definitzen duten alderdi nagusien eta etorkizuneko itxaropenen diagnosi nabarmenki kuantitatiboa egin nahi da, eskuragarri dauden iturri estatistiko nagusietatik bildutako oinarritzko adierazleetan oinarrituta.

Informazioa iturri estatistiko ofizialetatik eta behatokiak bere ekimenez hainbat gairi buruz egiten dituen azterlanetatik dator. Adierazleak lantzeko hamar bat erakunderen galdeketa eta eragiketa estatistiko ugaritara jo da. Iturri horiei gazteen egoera hauen guztien egoerarekin alderatzeko balio izan dutenak gehitu behar zaizkie: EAEko biztanleria, oro har; autonomia-erkidegoetako gazteak; Espainiako gazteak eta Europar Batasuneko herrialdeetako gazteak.

Azterlan honek 111 adierazle eskaintzen ditu, gazteen errealitatea islatzeko, eta duten garrantziaren edo zentraltasunaren arabera guztira oinarritzko 64 adierazle azpimarratzen ditu eta horiei beste 47 adierazle osagarri gehitzen zaizkie. Hori horrela, irakurleak bi sakontze mailaren artean aukera dezake, duen interesaren arabera.

Adierazleak hautatzerakoan, kontuan hartu dira garrantzia, zabal samarrak diren sail ebolutiboak, adierazlea hainbat aldagairen arabera bereizteko aukera, eta autonomia, estatu eta nazioarte mailan datu alderagarriak egotea.

Informazioa lau formatutan aurkezten da:

- **LABURPEN EXEKUTIBOA:**

Aztertutako adierazle guztien informazioa laburbiltzen duen testu laburra. Euskal gazteriaren egoera zazpi alderdiren arabera deskribatzen du: demografia eta biztanleria; hezkuntza; enplegua eta egoera ekonomikoa; emantzipazioa eta etxebizitza; osasuna; aisia, kultura eta kirola, eta, azkenik, balioak eta jarrerak.

- **GAZTEEN ADIERAZLEEN PANELA:**

Euskal gazteriaren panoramika hau osatzen duten 111 adierazleen definizioak eta daturik eguneratuenak eskaintzen dituen laburpen-taula, adierazle nagusien eta osagarrien arteko bereizketa eginda.

- **ADIERAZLEEN FITXAK:**

Fitxa horietan oinarritzko 64 adierazleei buruz laburbildutako informazioa eskaintzen da. Adierazle bakoitza fitxa batean aurkezten da eta informazio hau biltzen du: definizioa eta horren iturria; eskuragarri dauden azken datuak; aldagai garrantzitsuenen arabera (sexua, adina, lurralde historikoa...) adierazlearen bereizketa; gazteen egoera EAEko biztanleriaren aldean; adierazlearen bilakaera, eta alderaketa geografikoa beste autonomia-erkidego eta/edo Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin.

- **DATU BASE INTERAKTIBOA:**

On lineko datu-bankua da eta taulak, grafikoak eta mapa interaktiboak egiteko aukera eta informazioa atera eta deskargatzeko aukera ematen du, ondoren beste programa batzuetan erabiltzeko. Euskal gazteriaren panoramika hau osatzen duten 111 adierazleak biltzen ditu.



1

LABURPEN EXEKUTIBOA

D EMOGRAFIA ETA BIZTANLERIA

Biztanleria gaztearen bolumenak behera egin du, gazteen pisu demografikoa orduan eta txikiagoa da gero eta zaharkituago dagoen gizartean, etorkin gazteen etorrera murriztu egin da eta gazteen ugalkortasuna jaitsi egin da. Hori da EAEko egoera demografikoa eta Mediterraneoko eta Europa hegoaldeko herrialdeekin antza handiagoa du ipar eta erdialdeko herrialdeekin baino; azken horietan, hain zuzen ere, emakume gazteen ugalkortasun-tasa eta gazteek populazioan duten pisua askoz ere handiagoa da.

- EUSTATEko datuen arabera, 2013ko urtarrilaren 1ean, 15 eta 29 urte arteko 299.690 pertsona zeuden EAEn, hau da biztanleria guztiaren % 13,8. Gazteek biztanlerian duten pisuak beherantz egiten jarraitu du 2000. urteaz geroztik (% 22,2).
- EAEko gazteria indizea Espainiako baxuenetakoa da (% 16,1) eta EB-28ko (% 17,9) eta zenbait herrialdeetako batez bestekoaren oso azpitik dago, hala nola Erresuma Batua (% 19,7) eta Suediaren azpitik dago (% 19,3).
- EAEko 15 eta 29 urte arteko pertsona guztien artean % 14 atzerritar jatorrikoa da. Atzerritarren artean, gazteen indizeak espainiar nazionalitatea duten biztanleena bikoiztu egiten du. Atzerriko biztanleen % 27,3k 15 eta 29 urte artean ditu.
- 2012an EAEko gazteen migrazio-saldoa (azken datu erabilgarria) 4.136 lagunekoa izan zen, hau da, irten ziren gazteak baino gehiago sartu ziren.
- EAEko emakumeen egungo ugalkortasun-tasak ere ez du lagunduko etorkizunean EAEko piramide demografikoa orekatzen; izan ere, 2012an 15 eta 29 urte arteko 1.000 emakumeko 26,7 jaiotza gertatu ziren batez beste EAEn, hau da, % 3,9ko beherakada gertatu zen aurreko urtearekin alderatuta.

EAEEn gazteen hezkuntza mailak gora egin du azken urteetan. Hezkuntza-adierazleek bilakaera oso positiboa izan dute.

- 2013. urtean, EAEko **eskola uzte goiztiarraren tasa** % 8koa zen (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik haratagoko prestakuntzarik ez duten 18 eta 24 urte arteko gazteak) eta krisia hasi zenetik nabarmen egin du behera portzentaje horrek (2008an % 14,1ekoa zen). Portzentaje hori ia parekoa bada ere gizonezkoen (% 8,2) eta emakumezkoen (% 7,9) artean, aipatzekoa da ildo horretan gertatu den pixkanakako bat-etortzea; izan ere, 2000. urtean, gizonezkoen eskola uzte goiztiarraren tasa emakumezkoena baino 7,8 puntu altuagoa bazen ere, 2013. urtean alde hori ia desagertuta zegoen, gizonezkoen tasan izandako murrizketa nabarmenari esker.
- Eskola uzte goiztiarreko tasa baxu horiek gazte gehienek **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** ondoko ikasketak dituztela esan nahi du. Hain zuzen, EAEko 20 eta 24 urte arteko gazteen % 85,5ek ikasketa horiek amaitu ditu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko ikasketen tasari dagokionez, EAEko egoera Espainiakoa (% 63,8) baino apur bat hobea da. EBko beste herrialde batzuekin alderatuta, EAEko zifra Finlandia (% 85,9) eta Suediako (% 86,2) zifretatik gertu dago.
- **Goi mailako ikasketen** harira, EAEEn 30 eta 34 urte artekoen % 44,2k hirugarren mailako ikasketa titulua du, hau da, unibertsitateko ikasketak edo goi mailako heziketa zikloa ditu. Ehuneko hori argi eta garbi altuagoa da emakumezkoen kasuan (% 52,1) gizonezkoenean baino (% 36,7) eta azken urteetan nabarmen egin du gora. EAEEn goi mailako titulua duten gazteen portzentajea (% 44,2) Espainiakoa baino altuagoa da (% 42,3) eta baita EB-28koa baino altuagoa ere (% 36,9) 2013an. Europan ere gazteen kualifikazioak goranzko joera izan du, hori horrela, azken hamarkadan EB-28n goi mailako titulazioa duten gazteen ehunekoa 2002an % 23,6 izatetik 2013an % 36,9 izatera igaro da.
- 20 urtetan hirueletasun-tasa (euskara eta gaztelaniaz gain, ingelesa) nabarmen hazi da Euskadin, % 3 izatetik % 26 izatera iritsi da. Gazteen hirueletasun-tasak EAEko biztanleena (% 8,8), oro har, hirukoiztu egiten du.

Enpleguari eta egoera ekonomikoari buruzko datuek argi erakusten dute egungo krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan duela gazteengan gainerako biztanleengan baino, lan-egoerak okerrera egin duelako, langabezia areagotu delako, enplegua prekario bilakatu delako eta pobrezia areagotu delako. Hain zuzen ere, enpleguarekin eta egoera ekonomikoarekin lotutako adierazleek oso egoera kezkagarria erakusten dute, aztertutako adierazle guztietan okerrera egitea nabarmena izan baita: jarduera-tasak behera egin du, okupatutako gazteen portzentajea Europako baxuenetarikoa da, langabezia-tasa maximo historikoetara iritsi da eta biztanleria guztiaren langabezia-tasatik, nahiz EBko gazteen batez besteko langabezia-tasatik urruntzen da.

- **Lan-jardueraren tasari** dagokionez, 16 eta 29 urte arteko euskal gazteen erdia baino gehiago (% 50,7) lanean dago edo lan egiteko moduan dago eta tasa hori % 82,6ra iristen da 25 eta 29 urte arteko gazteen artean.
- **Okupazio-tasak** nabarmen egin du behera krisiaren ondorioz. 2013an, lan-jardueraren batean enplegatutako gazteak kolektiboaren % 36 baino ez ziren eta okupazio-tasa altuagoa zen emakumeen artean (% 38,6) gizonezkoen artean baino (% 33,3). 2006. urteaz geroztik, eta 2008tik aurrera nabarmenago, gazteen okupazio-tasa nabarmen jaitsi da, aurreko urteetako gorakadaren ostean.
- **Langabezia-tasa** gazteen ia % 30era iritsi zen 2013an (% 29,2). Gipuzkoa gazteen langabezia-tasarik baxuena duen Lurralde Historikoa izateagatik nabarmendu da (% 24,3). Tasa hori gizonezkoen artean (% 32,3) apur bat altuagoa da emakumezkoen artean baino (% 26,2) eta horrek aldaketa kualitatibo esanguratsua esan nahi du aurretiko beste krisi-egoerekin alderatuta. Adin-tarteen arabera ere, tasa altuagoa da gazteen artean (% 39,2ko langabezia-tasa 16 eta 24 urte bitarteko artean).
- EAEn gazteen langabezia-tasak EB-28ko batez bestekoa gainditzen du (% 18,8), hala ere, estatukoa are altuagoa da (% 42,4).
- **Epe luzeko langabezia-tasa** –12 hilabete baino gehiago jarraian langabezian daramatzaten gazteak–, aldiz, % 11,7koa zen 2013an, hau da, 2001ean baino ia bi aldiz gehiago (% 6).
- EAEn lan egiten duten gazteen lan-baldintzen harira, 16 eta 29 urte artean soldatapekoak direnen erdiak baino gehiagok (% 56,8) **aldi baterako kontratua** zuen 2013an, behin-behinekotasun tasa handiagoa izanik 16 eta 24 urte bitarteko artean (% 69,4), 25 eta 29 urte bitarteko artean baino, horien erdia ingururi eragiten baitio (% 51,8). 2013an, gazteen arteko behin-behinekotasunak ia hirukoiztu egiten zuen biztanleria guztiarena (% 21,4) eta Europako gazteen batez besteko tasa soberan gainditzen zuen (% 31,5).

- Lanean dagoen ia lau gaztetik bat lanaldi partzialean aritzen da (% 21,2). Lanaldi mota horren nagusitasuna adin-tarte guztietan areagotu den arren, gazteen artean gainerako biztanleen artean baino gehiago areagotu da eta, ondorioz, belaunaldien arteko tartea –2008 arte ia antzeman ezina zena– handitzen joan da azken urteetan, 2013an lanean dagoen biztanleriarena gainditzeraino (% 13,9).
- Gazteen **laneko itxaropenei** dagokienez, ikasten ari direnen % 46ak ikasketak amaitzean prestakuntzarekin lotura duen lana bilatuko duela uste du.
- Lanean ari diren gazteen erdia inguru (% 52,2) prestakuntzarekin zerikusia duen posturen batean dabil. Prestakuntzarekin lotura duen **enpleguaren** portzentajea apur bat handiagoa da gizonezkoen artean (% 54,3) eta ikasketa mailak gora egiten duen heinean, horrek ere gora egiten du (% 63,9).
- **Autoenpleguaren** hedapenari dagokionez, aipatzekoa da 2013an 20 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen artetik hamarretik batek autonomo edo enpresari gisa egiten duela lan.
- Horrez gain, gazteen lan-egoera okertu dela erakusten duten adierazle kualitatiboak daude (gazteek lan-merkatuan duten egoerari buruz duten pertzepzioarekin lotutakoak). Hori horrela, krisi ekonomikoaren egungo testuinguruan, lanean ari diren gazteen % 57k urtebeteko epean lana galtzeko edo lan-baldintzek okerrera egiteko arriskua antzematen du.
- Horrez gain, gazteen % 16,2k etorkizunean gogoz kontra atzerrira joan beharko duela lan egitera pentsatzen du.

MANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

- Euskal gazteen **emantzipazio-tasa** % 43,5koa zen 2013an, hau da, 18 eta 34 urte arteko gazteen % 43,5 modu independentean bizi zen. Tasa handiagoa da emakumeen artean (% 46,7) gizonezkoen artean baino (% 40,3) eta 30etik 34ra bitarteko adin-tartean egiten du gora batez ere; tarte horretan % 74,2an dago.
- Euskal gazteria batez beste 30 urterekin (29,9 urte) emantzipatzen da, hau da, azken 20 urteetan 3,6 urte egin du gora emantzipatzeko adinak. Gazte euskaldunen **emantzipatzeko batez besteko adina** Espainiako 28,5 urteko batez bestekoa baino altuagoa da. EAEn emantzipatzeko batez besteko adina UE-28ko batez bestekoa (26,2) baino handiagoa da. Hortaz, EAeko emantzipatzeko batez besteko adina Europa hegoaldeko herrialdeetako antzekoa da, hala nola Italia (29,7), Grezia (28,8), Espainia (28,5) eta Portugalekoaren antzekoa (28,6). Herrialde horietan guztietan gazteen langabezia-tasa oso altua da. Herri nordikoetan, aldiz, gazteak goizago emantzipatzen dira gurasoen etxetik, Suedian (20,3), Danimarkan (21) edo Finlandian (21,9), kasu.
- Emantzipatutako gazteen % 49,4 **alokairuko etxebizitzetan** bizi da; azken hamarkadetan portzentaje horrek nabarmen egin du gora, baina aipagarria da EAEk oraindik ere Europako beste herrialde batzuetan baino gazteen (eta biztanleriaren) irisgarritasun txikiagoa erakusten duela.
- Prezioek, oro har, behera egin duten arren, etxebizitzaren garestitasunak oztopo nabarmena izaten jarraitzen du gazteen emantzipaziorako garaian. Horren harira, **etxebizitza jabetzan eskuratzeko batez besteko kostua** 2013an gazteen diru-sarreraren % 62,8koa zen. Kostu hori handiagoa da Gipuzkoan bizi diren gazteen kasuan (% 70,5) eta segidan daude Bizkaia (% 60) eta Araba (% 54,2).
- Etxebizitza eskuratzeko kostuarekin estuki lotuta dago **etxebizitzako kostuak ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoa**. Diru-sarreraren % 40tik gora alokairua edo ohiko etxebizitzaren hipoteka-kuota ordaintzeko baliatzen duten emantzipatutako gazteen portzentajea adierazten du horrek. Hain zuzen ere, emantzipatutako euskal gazteen % 21,4k diru-sarreraren % 40tik gora bideratzen du alokairua edo hipoteka-kuota ordaintzera. Lurralde historikoen arabera, gehiegizko esfortzu hori egiten duten gazteen ehuneko handiena Bizkaiari dagokio (% 24,3) eta horren atzetik daude Gipuzkoa (% 18,3) eta Araba (% 17,8).

- Gazteek **beren osasunaz duten autopertzepzioa** nahiko egonkor mantendu da azken urteetan eta 2013an % 4,6k erdipurdiko osasuna, osasun txarra edo osasun oso txarra duela pentsatzen du. Aberastasun gutxien duten klaseetako pertsonak (beheko klasea eta klase ertaina) goiko klasekoek baino osasunaren autopertzepzio negatiboagoa dutela aipatzea garrantzitsua da.
- Euskal gazteen % 13,7k antsietate- edo depresio-arazoak ditu eta portzentaje hori altuagoa da emakumeen artean (% 18,7). Arazo psikologikoen prebalentzia apur bat areagotu da 2002. eta 2013. urteen artean.
- EAEn 15 eta 29 urte artean dituztenen artean obesitate-tasak gora egin du pixkanaka, 2002an % 3,4koa zen eta 2013an, berriz, % 5,4koa. Obesitateak gizonezkoen (% 6,0) neurri handiagoan eragiten die eta klase sozialak gora egin ahala, murriztu egiten da (% 7,4 behe mailako klaseko edo klase ertain baxuko pertsonengan eta % 3,5 goi mailako edo klase goi ertainekoen artean).
- Gazte gehienek (% 75,3) **jarduera fisiko** osasungarriren bat egiten dute. 2007az geroztik, azken zazpi egunetan neurrizko ariketa fisikoa edo ariketa fisiko bizia egin duten gazteen portzentajeak gora egin du, % 67,6 izatetik, 2013an % 75,3 izateraino.
- Gazteen % 23,5ek **tabakoa erre ohi duela** aitortzen du; portzentajea altuagoa da gizonezkoen artean (% 26,6) emakumezkoen artean (% 20,4) baino. 1992az geroztik beheranzko joera argia izan da tabakoaren kontsumoan euskal gazteen aldetik eta beherakada hori bereziki nabarmendu da 2006tik aurrera.
- EAEko gazteen % 24,5ek alkohol gehiegi kontsumitzen du edo alkoholaren kontsumo arriskutsua egiten du. Gizonezkoen alkoholaren gehiegizko kontsumoaren tasak (% 32,6) emakumeena ia bikoiztu egiten du (% 16,6).
- Euskal gazteen % 4,3k kalamua ohikotasunez kontsumitzen du, proportzioa askoz ere handiagoa izanik gizonezkoen artean (% 7,1) emakumezkoen artean baino (% 1,6). 2008az geroztik, kalamuaren kontsumoa nabarmen jaitsi da gazteen artean.
- Nerabazaroko haurdunaldien intzidentzia 15 eta 17 urte arteko 1.000 emakumeen artean 9,7koa da. Nerabazaroko haurdunaldien tasa ia 8 bider altuagoa da gazte atzeritarren artean (% 43,8) espainiar nazionalitatea dutenen artean baino (% 5,6).
- Trafiko-istripuak dira heriotza-arrazoi nagusia gazteen artean; EAEn 100.000 gazteen artean 4,7ri eragiten die. Bide-istripuen ondoriozko heriotza-tasak, asko jaitsi den arren, gizonezkoen artean (5,9) nabarmen altuagoa izaten jarraitzen du emakumeen artean baino (3,4).

A ISIA, KULTURA ETA KIROLA

- Gazteen % 42,9k jarduera artistikoren bat egiten du (argazkilaritza, pintura...), emakumeek gizonezkoek baino gehiago.
- **Gazteek adiskideekin harremanetan jartzeko erabiltzen duten hizkuntzari** dagokionez, % 42k euskara erabiltzen du, lurraldeen arteko aldeak nabarmenak diren arren (% 26,1 Araban, % 30,7 Bizkaian eta % 59,3 Gipuzkoan).
- EAEko gazteen % 40,2k **kirola egiten** du astean hirutan gutxienez. Portzentajea nabarmen altuagoa da gizonezkoen artean (% 50,2) emakumezkoen artean baino (% 29,6) eta adinaren arabera, portzentajerik handiena 15 eta 19 urte arteko gazteei dagokio (% 49,3) eta goragoko adin-tarteetan, berriz, gutxituz doa.
- % 53,7k erregularitasunez irakurtzen du (hezkuntzaren testuinguruan nahitaezkoak diren irakurgaiak alde batera utzita). Irakurketaren kasuan, genero-eredu berak mantentzen dira, baina alderantziz: emakumeen % 65,1ek erregularitasunez irakurtzen du eta gizonezkoen artean, berriz, % 42,8k.
- Azkenik, merkataritza elektronikoa kontsumorako baliabide nagusi gisa gailendu da gazteen artean (% 36,8) azken urteetan eta horrek teknologia berriek gazteen errealitatean izan duten txertaketa handia erakusten du.

BALIOAK ETA JARRERAK

- Gazteen **poztasun pertsonalaren indizeak** beren egoeraz duten balorazio pertsonala erakusten du, 2013an 7,2koa zena (0 eta 10 arteko eskalan). Adinean gora egin ahala, poztasun pertsonalaren mailak behera egiten du, 25 eta 29 urte artekoen poztasun pertsonala (6,7) biztanleriarena (6,8), oro har, baino txikiagoa izateraino.
- **Asoziazionismo-tasaren** harira, hiru gaztetik bat (% 34,1) elkarteren bateko kide da. Gazteen artean elkarte motarik ezagunenak hauek dira: kiroltakoak (% 15), txokoak edo aisialdirako elkarteak (% 8,4), musikalak (% 5), kulturalak (% 4,9) eta ikasle-elkarteak (% 4,4). Boluntariotzan jarduten duten gazteen ehunekoa % 6,5ekoa da, emakumeen kasuan altuagoa izanik (% 7,8).
- Gazteen % 22,5 oso edo nahiko interesatuta dago politikarekin; Gipuzkoan ehuneko hori altuagoa da (% 28,2) eta baita adin nagusieneko gazteen artean ere (% 26,7).
- Erljio-sinesteek pisua galtzen jarraitzen dute gazteen artean; hain zuzen ere, beren burua fedegabe edo agnostiko gisa definitzen duten gazteen proportzioak gora egin du, 1998an % 31 izatetik, 2012an % 53,6a izateraino.
- **EAEEn abortu libre eta borondatezkoaren alde egiten duten gazteen portzentajea** % 78,9koa da.
- Genero-berdintasunaren alorrean, EAEko gazteen ia laurdenak (% 23,5) **berdintasunik eza** (gizonezkoen alde) antzematen du lanpostu bat eskuratzekoan eta portzentaje hori askoz ere handiagoa da emakumeengan (% 28,1) gizonezkoengan (% 19,1) baino.
- 15 eta 29 urte arteko nesken % 32,2k gauez kalean ibiltzeari beldur diola aitortzen du eta mutilen artean, berriz, portzentaje hori % 7,1ekoa da. Adin-tarteen arabera, gauez kalean ibiltzeari beldur diotenen portzentajeak behera egiten du adinean gora egin ahala.
- **Emakumeen aurkako indarkeriaren** ildotik, EAEen 1.000 emakume gazteren artetik ia 8k (% 7,7) salaketa jarri du arrazoi horregatik 2013. urtean. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra gazteen artean altuagoa da (% 7,7) emakumeen guztizkoan baino (% 3,4).
- Gazteen % 37,2 garraio publikoan mugitzen da egunero (Bizkaian gainerako lurralde historikoetan baino gehiago) eta beste % 9,6k bizikletaz egiten du (hori ohikoagoa da Araban eta Gipuzkoan, Bizkaian baino).
- **2013ko etorkizunarekiko konfiantza-indizeak** nahiko itxaropen baikorra erakusten du gazteen aldetik, hain zuzen ere, 100etik 63,8 punturekin baloratzen dute etorkizunean duten itxaropena.



2

GAZTEEN ADIERAZLEEN
PANELA

DEMOGRAFIA ETA POPULAZIOA

	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Biztanleria gaztea	299.690	146.679	153.011	Absolutuak	2013	15-29	-
Atzerritarra den biztanleria gaztea	41.381	22.097	22.584	Absolutuak	2013	15-29	-
Gazteria indizea	13,8	13,1	14,4	Portzentajea	2013	15-29	1.1
64 urtetik gorakoen arabera gazteen ratioa	68,1	60,1	87,3	Portzentajea	2013	15-29	-
Migrazio-saldoa	4136	2043	2.093	Absolutuak	2012	15-29	1.2
Ugalkortasun-tasa	26,7	-	-	1000ko tasa	2012	15-29	1.3
Lehenengo seme-alaba izatean batz besteko amatasunaren adina	31,6	-	-	Urteak	2013	-	-

HEZKUNTZA

	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa	8	7,9	8,2	Portzentajea	2013	18-24	2.1
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatuen tasa	85,5	85	86,3	Portzentajea	2013	20-24	2.2
Goi-mailako hezkuntza titulazioa	44,2	52,1	36,7	Portzentajea	2013	30-34	2.3
Zientzia eta teknologian graduatuen tasa	29,4	17,3	41,2	1000ko tasa	2010	20-29	2.4
15 urteko ikasleen irakurtzeko gaitasuna	498	513	483	Puntuazioa (oinarria=500)	2012	15	-
15 urteko ikasleen matematika gaitasuna	505	498	512	Puntuazioa (oinarria=500)	2012	15	-
15 urteko ikasleen zientzia gaitasuna	506	501	510	Puntuazioa (oinarria=500)	2012	15	-
Euskararen ezaguera	61,3	59,2	63,6	Portzentajea	2009	15-29	-
Ingelesaren ezaguera	49,3	43,4	55,4	Portzentajea	2009	15-29	-
Hirueletasun-tasa	26	22,3	29,9	Portzentajea	2009	15-29	2.5
Euskara komunikazio-hizkuntza duten ikasleak	59	59,5	58,6	Portzentajea	2013	-	-
Ikasketak, lana edota boluntario izateko atzerrira joan diren gazteak	50,2	53,8	46,7	Portzentajea	2013	15-29	-
Euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa	58,6	60,5	56,7	Portzentajea	2012	15-29	-

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Jardueraren tasa	50,7	52,3	49,2	Portzentajea	2013	16-29	3.1
Okupazio tasa	35,9	38,6	33,3	Portzentajea	2013	16-29	3.2
Langabezia tasa	29,2	26,2	32,3	Portzentajea	2013	16-29	3.3
Epe luzeko langabezia tasa	11,7	11,5	12	Portzentajea	2013	16-29	3.4
Soldatapeko langileen aldi baterako enplegu-tasa	56,8	57,3	56,1	Portzentajea	2013	16-29	3.5
Lanaldi partzialeko enplegu-tasa	21,2	26,3	15,1	Portzentajea	2013	16-29	3.6
Laneratze tasa unibertsitateko ikasketen ostean	73,1	72,2	74,6	Portzentajea	2013	-	-
Laneratze tasa LHko ikasketen ostean	61,5	64,5	59,1	Portzentajea	2011	-	-
Ikasketak bukatzean prestakuntzari lotutako enplegua izatea aurreikustea	46	40,4	50,9	Portzentajea	2013	15-29	3.7
Prestakuntzari lotutako lana	52,2	50	54,3	Portzentajea	2013	16-29	3.8
Bataz besteko soldata garbia	998,73	928,46	1.072,74	Euroak	2013	16-29	-
Laneko ezbehar-kopuruaren indizea	35	18,8	51,4	1000ko tasa	2013	16-34	3.9
Autoenplegurako asmoak izan dituzten gazteak	32,4	29,3	35,3	Portzentajea	2013	15-29	-
Bere kontura lan egiten dutenen tasa	9,5	10,5	8,5	Portzentajea	2013	20-29	3.10
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua	57	58,7	54,9	Portzentajea	2013	16-29	3.11
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea	16,2	14,8	17,5	Portzentajea	2013	15-29	3.12
Hilero 600 eurotik gorako baliabide ekonomikoak	23,8	24,4	23,3	Portzentajea	2013	15-29	3.13
Etxebizitza gazteen pobrezia-arriskua	20,2	21,6	18,7	Portzentajea	2012	<35	3.14
Pobrezia errearen tasa	8,4	8,6	8,2	Portzentajea	2012	16-29	3.15
Estalitako pobrezia-aren tasa	8,1	8,7	7,4	Portzentajea	2012	16-29	3.16

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA



	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Emantzipazio tasa	43,5	46,7	40,3	Portzentajea	2013	18-34	4.1
Emantzipaziorako batz besteko adina	29,9	28,8	30,8	Urteak	2011	Urteak	4.2
Emantzipaziorako adin erreal eta adin idealaren arteko aldea	5,3	4,3	6,1	Urteak	2011	18-34	-
Alokairuko emantzipazioa	49,4	49	49,9	Portzentajea	2013	18-34	4.3
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea	45,2	45,2	45,1	Portzentajea	2013	15-29	4.4
Arazo ekonomikoengatik gurasoen etxebizitzara itzultzen diren gazteak	3,1	2,9	3,3	Portzentajea	2013	18-34	-
Etxebizitzaren garestitzearen pertzepzioa emantzipatzeko zailtasun gisara	75,9	77,1	74,8	Portzentajea	2013	18-34	-
Etxebizitza librea alokatzearen kostua	59	65,2	53,9	Portzentajea	2013	18-34	4.5
Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua	62,8	69,5	57,4	Portzentajea	2013	18-34	4.6
Merkatuko alokairu errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea	405,4	445,7	365,6	Euroak	2013	18-34	-
Jabetzako babes ofizialeko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteak	7,9	6,8	9,4	Portzentajea	2013	18-34	-
Alokairu sozialeko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteak	7,7	8,3	7	Portzentajea	2013	18-34	-
Etxebizitzako kostuak ordaintzeko gehiegizko esfortzua	21,4	23,8	18,5	Portzentajea	2013	18-34	4.7
Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten gazteak	26,5	26,8	26,2	Portzentajea	2013	18-34	-
Alokairuko etxebizitza jabetzakoaren aldean nahiago duten gazteak	41,8	43,5	40,5	Portzentajea	2013	18-34	-
Etxegabeko gazteen arreta tasa	2,8	1,1	4,4	1000ko tasa	2012	18-29	4.8

OSASUNA

	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Osasun-maila eskasaren prebalentzia	4,6	5,2	3,9	Portzentajea	2013	15-29	5.1
Osasun-mailako arazo kronikoen prebalentzia	20,7	23,4	18,2	Portzentajea	2013	15-29	-
Antsietate- eta depresio-arazoen prebalentzia	13,7	18,7	9	Portzentajea	2013	15-29	5.2
Obesitate tasa	5,4	4,8	6	Portzentajea	2013	15-29	5.3
Jarduera fisikoa	75,3	71,6	78,8	Portzentajea	2013	15-29	5.4
Ohiko tabako-kontsumoa	23,5	20,4	26,6	Portzentajea	2012	15-29	5.5
Gehiegizko alkohol-kontsumoa	29,5	16,6	32,6	Portzentajea	2012	15-29	5.6
Ohiko kanabis-kontsumoa	4,3	1,6	7,1	Portzentajea	2012	15-29	5.7
Droga-mendekotasunen tratamenduetako hasiera	2,2	0,7	3,5	Portzentajea	2012	15-29	-
Interneteko erabilera arazotsua	8,3	9,3	7,1	Portzentajea	2012	15-29	5.8
Nerabezaroko haurdunaldien tasa	9,7	-	-	1000ko tasa	2012	15-17	5.9
Haurdunaldien borondatezko etendurak	14,4	-	-	Portzentajea	2012	15-29	-
Arriskuzko sexu-harremanak	23,6	21,4	25,6	Portzentajea	2012	15-29	-
GIB infekzio berriak	1,4	0,7	2,1	10.000ko tasa	2012	15-29	-
Suizidioen ondoriozko heriotza tasa	3	0,7	5,2	100.000ko tasa	2012	15-29	5.10
Trafiko istripuen ondoriozko heriotza tasa	4,7	3,4	5,9	100.000ko tasa	2012	15-29	5.11

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Jarduera artistikoetan partaidetza	42,9	47,1	38,8	Portzentajea	2012	15-29	6.1
Kontzertuetara joatea	41,6	37,1	45,9	Portzentajea	2012	15-29	-
Euskararen lagunarteko erabilera	42	42	42	Portzentajea	2012	15-29	6.2
Irakurtzeko ohitura	53,7	65,1	42,8	Portzentajea	2012	15-29	6.3
Euskaraz irakurtzeko ohitura	43,2	44,5	42	Portzentajea	2012	15-29	6.4
Merkataritza elektronikoa	36,8	40,2	33,5	Portzentajea	2013	15-29	6.5
Lokala duten gazteak	19,5	14,7	23,9	Portzentajea	2011	15-29	-
Kirol-elkarteetako kideetza	15	9,1	20,6	Portzentajea	2012	15-29	-
Kirol-jarduera erregularra	40,2	29,6	50,2	Portzentajea	2012	15-29	6.6

BALIOAK ETA JARRERAK

	DATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UNITATEA	URTEA	ADINA	FITXA
Poztasun pertsonalaren indizea	7,2	7,3	7,1	Puntuazioa (0-10)	2013	15-29	7.1
Etorkizunarekiko konfiantza indizea	63,8	64,8	62,8	Puntuazioa (0-100)	2013	15-29	7.2
Berauen adinean, gurasoak baino egoera hobean daudela adierazten duten gazteak	51,1	51,4	50,8	Portzentajea	2013	15-29	7.3
Asoziazionismo tasa	31,4	30,2	37,9	Portzentajea	2012	15-29	7.4
Boluntario-lanak betetzea	6,5	7,8	5,3	Portzentajea	2012	15-29	7.5
Eredu sozialean aldaketa gertatzeko nahia	64,9	62,2	67,4	Portzentajea	2012	15-29	-
Gai publikoetan parte hartzeko nahia	42	45	39,2	Portzentajea	2012	15-29	-
Begiko alderdi politikorik ez dutela adierazten duten gazteak	53,1	54,7	51,6	Portzentajea	2012	15-29	-
Hauteskunde deialdietan parte hartzea	66,4	69,4	63,4	Portzentajea	2013	15-29	-
Politikarekiko interesa	22,5	19,5	25,5	Portzentajea	2012	15-29	7.6
Sinesgabe edo agnostikoak diren gazteak	53,6	51,1	55,8	Portzentajea	2012	15-29	7.7
Intolerantzia ideologikoa	17,3	15,6	19	Portzentajea	2012	15-29	-
Immigranteak etortzearen gaitzespena	9,8	8,2	11,4	Portzentajea	2012	15-29	7.8
Pertsona atzeritarrekiko auzuneetako intolerantzia	15,5	15,3	15,6	Portzentajea	2012	15-29	-
Pertsona atzeritar gehiegi izatearen pertzepzioa	44,6	43,7	45,4	Portzentajea	2012	15-29	-
Pertsona homosexualiekiko auzuneetako intolerantzia	11	9,8	12,2	Portzentajea	2012	15-29	-
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen sostengua	87	92,2	82,1	Portzentajea	2012	15-29	-
Legezko sexu-aldaketarako sostengua	80,6	87,9	73,6	Portzentajea	2012	15-29	-
Ikastetxeetan erlijioa irakastearen sostengua	37,9	39,5	36,3	Portzentajea	2012	15-29	-
Eutanasiaren sostengua	73	70,2	75,6	Portzentajea	2012	15-29	-
Kanabisa legeztatzearen sostengua	60,5	53,3	67,3	Portzentajea	2012	15-29	-
Abortu libre eta borondatezkoaren sostengua	78,9	80,5	77,4	Portzentajea	2012	15-29	7.9
Hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen sostengua	56,5	53,4	59,5	Portzentajea	2012	15-29	-
Lana lortzean genero-desberdintasunaren pertzepzioa	23,5	28,1	19,1	Portzentajea	2012	15-29	7.10
Etxebizitzako lanetan dagoen genero-arraila	16	-	-	Minutuak	2013	15-29	7.11
Kalean gauetz ibiltzearen beldurra	19,4	32,2	7,1	Portzentajea	2012	15-29	7.12
Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa globala	7,5	-	-	1000ko tasa	2013	15-29	7.13
Kontsumo jasangarriaren indizea	43,3	48,7	38,3	Portzentajea	2013	15-29	-
Garraio publikoen ohiko erabilera	37,2	41,8	32,9	Portzentajea	2012	15-29	7.14
Garraiorako bizikletaren ohiko erabilera	9,6	6	13	Portzentajea	2012	15-29	7.15

DEFINIZIOAK (ordena alfabetikoan)

15 urteko ikasleen irakurtzeko gaitasuna: EAEko 15 urteko ikasleek PISA ebaluazioan lortutako batz besteko puntuazioa, irakurtzeko konpetentziari dagokionean.

15 urteko ikasleen matematika gaitasuna: EAEko 15 urteko ikasleek PISA ebaluazioan lortutako batz besteko puntuazioa, matematikarako konpetentziari dagokionean.

15 urteko ikasleen zientzia gaitasuna: EAEko 15 urteko ikasleek PISA ebaluazioan lortutako batz besteko puntuazioa, zientzietarako konpetentziari dagokionean.

64 urtetik gorako araberako gazteen ratioa: 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen zenbatekoa 64 urtetik gorako 100 laguneko.

Abortu libre eta borondatezkoaren sostengua: Abortu libre eta borondatezkoari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Alokairu sozialeko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteak: Alokairu sozialeko etxebizitzan bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Alokairuko emantzipazioa: Alokairu-erregimenean bizi den 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Alokairuko etxebizitza jabetzakoaren aldean nahiago duten gazteak: Etorikizunera begira, alokairuko etxebizitza jabetzakoaren aldean nahiago duten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte berean emantzipatuta ez dauden gazte guztien arabera.

Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentzia: Antsietate edo/eta depresio-arazoak dituzten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Arazo ekonomikoengatik gurasoen etxebizitzara itzultzen diren gazteak: Emantzipazio esperientzia izan eta gero arrazoi ekonomikoak direla eta (lan gabe geratzeagatik edo ezin zituztelako etxebizitzaren gastuak ordaindu) gurasoen etxera itzuli diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko gazte guztien arabera.

Arriskuzko sexu-harremanak: Azkeneko urtean arriskuzko sexu-harremanen bat izan duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa azken urtean sexu-harremanen bat izandako adin-tarte bereko gazte guztien arabera.

Asoziazionismo tasa: Elkarteren bateko kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Atzerritarra den biztanleria gaztea: 15 eta 29 urte bitarteko herritartasun atzerritarra duen biztanleria gaztea kopuru absolututan.

Autoenplegurako asmoak izan dituzten gazteak: Beren enplegua sortzeko asmoak izan dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Bertan kontuan hartzen dira autonomo izandako eta diren gazteak, bai eta seriooki planteatu dutenak, abian jarri zein ez.

Bataz besteko soldata garbia: 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteek hilerio jasotzen duten bataz besteko soldata garbia

Begiko alderdi politikorik ez dutela adierazten duten gazteak: Begiko alderdi politikorik ez dutela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Berauen adinean, gurasoak baino egoera hobean daudela adierazten duten gazteak: Berauen adinean, berauen gurasoak baino egoera hobean daudela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Bere kontura lan egiten dutenen tasa: Bere kontura lan egiten duten (enpresaburu eta autonomoak) 20 eta 29 urte bitarteko pertsona gazteen ehunekoa adin bereko pertsona landun guztien arabera.

Biztanleria gaztea: 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria gaztea kopuru absolututan.

Boluntario-lanak betetzea: Boluntario-lanak betetzen dituen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea: Etorikizunean joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitea emigratu beharko dutela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatu tasa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko maila gutxienez lortu duen (CINE 3A, 3B eta 3C) 20 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Droga-mendekotasunen tratamenduetako hasiera: Droga-mendekotasunen tratamenduren bat hasitako 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa adin-tarte horretako 1.000 laguneko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa globala: Emakumeen aurkako indarkeriaren salaketarik egin duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen zenbatekoa, adin-tarte horretako 1.000 emakumeko.

Emantzipazio tasa: Emantzipatuta bizi den 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa adin bereko pertsona guztien arabera. Emantzipatutako pertsonak dira jatorriko etxebizitzatik kanpo bizi diren pertsonak, oinarritzat hartzen delarik BAiren baitan “erreferentziatzeko pertsona”, “ezkontide” eta “ahaidetasunik gabeko pertsona” agertzen diren horiek.

Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea: Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean burutzerik izango ez duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, dela gurasoen etxebizitzatik aldegitia ezinezko dutelako, dela desiratu gabe bertara itzuli behar direlako.

Emantzipaziorako adin erreal eta adin idealaren arteko aldea: Emantzipaziorako adin errearen eta 18 eta 34 urte bitartekoek idealtzat jotzen duten adinaren arteko urte-kopuruen aldea (adin erreala-adin ideala)

Emantzipaziorako batz besteko adina: Jatorriko familiarekiko bizikidetzat eteten den batz besteko adina.

Epe luzeko langabezia tasa: Jarraiko hamabi hilabete baino gehiago langabezia dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona aktibo guztien arabera.

Eredu sozialean aldaketa gertatzeko nahia: Eredu sozialean aldaketa gertatzeko nahia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, dela erreforma sakonen bitartez, dela aldaketa erradikal baten bitartez.

Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa: Gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gauditu (CINE 2) eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketa edo prestakuntzarik jaso gabeko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Estalitako pobrezia tasa: Estalitako pobrezia pairatzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien arabera. PGDI metodologiaren arabera, estalitako pobrezia bere baitan hartzen ditu epe motzean (urtebete baino gutxiago) egungo etxebizitzatik independente bizitzeko asmoa izan arren, mantentze-pobrezia pairatzeko arriskuan daude diru-sarrera nahikorik ez dutelako.

Etorkizunarekiko konfiantza indizea: Adierazle sintetiko honek biltzen ditu 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera pertsonalari, gazteriaren egoerari eta Euskadiko egoerari buruz bost urteko epearen inguruan dituzten itxaropenak.

Etxebizitza gazteen pobrezia-arriskua: PGDI metodologiaren arabera, mantentze-pobrezia arriskuan dauden 35 urte azpiko erreferentziatzeko pertsona buru duten etxebizitzetan bizi den biztanleriaren ehunekoa. Mantentzearen dimentsioko pobrezia-arriskuko egoeretan kontuan hartzen dira oinarriko edo ezinbesteko diren premiei aurre egiteko ez eskuragarri izatea diru-sarrera ekonomikoa nahikoa, bereziki ohiko elikadura-gastua, etxebizitza, jantzi edota oinetakoetan.

Etxebizitza librea alokatzearen kostua: 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza baten alokairua ordaintzera (bakter utzirik bestelako gastu gehigarriak, hala nola, fidantzak, hornidura-altak, bitartekarien ordainsariak...).

Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua: 18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen familia bakarreko etxebizitza libre bat, berria zein bigarren eskukoa, erosteko hipotekaren lehen kuota ordaintzera.

Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten gazteak: Etxebizitzako gastuak (alokairua, hipoteka, ura, argia, etab.) ordaintzeko zailtasunak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Etxebizitzako kostuak ordaintzeko gehiegizko esfortzua: Etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago ohiko etxebizitzaren alokairua edo hipoteka ordaintzera bideratzen duten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Etxebizitzako lanetan dagoen genero-arraila: Egunero batz bestean etxeko lanetan 16 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizon gazteek aritutako astiaren aldea (minututan).

Etxebizitzaren garestitzearen pertzepzioa emantzipatzeko zailtasun gisara: Etxebizitzaren garestitzea emantzipatzeko zailtasun gisara hautematen duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Etxegabeko gazteen arreta tasa: Etxegabeko pertsonen zentroetan artatutako 18 eta 29 urte bitarteko gazteen zenbatekoa adin-tarte berean errolatutako 1.000 laguneko.

Euskal hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa: EAEko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Euskara komunikazio-hizkuntza duten ikasleak: Araubide Orokorreko Irakaskuntzako D ereduaren matrikulatutako ikasleen ehunekoa.

Euskararen ezaguera: Euskaraz ondo hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Euskararen lagunarteko erabilera: Lagunartean gehienetan euskaraz edota euskaraz gaztelez beste hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazte elebidunen (euskaraz nahiko ondo edo zuzen hitz egiten dute) ehunekoa.

Euskaraz irakurtzeko ohitura: Azkeneko hiru hilabeteetan aisialdi, lan edo ikasketen inguruan euskarazko libururen bat irakurri duten 15 eta 29 urte bitarteko biztanle elebidunen (euskaraz nahiko ondo edo zuzen irakurtzen dute) ehunekoa.

Eutanasiaren sostengua: Eutanasiari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Gai publikoetan parte hartzeko nahia: Gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Garraio publikoen ohiko erabilera: Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako garraio publiko kolektiboa erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Garraiorako bizikletaren ohiko erabilera: Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako bizikleta erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Gazteria indizea: 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen proportzioa biztanleria osoan.

Gehiegizko alkohol-kontsumoa: Gehiegizko edo arriskuzko alkohol-kontsumoa egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, dela lanegunetan, dela jaiegun edo asteburuetan, betiere kontuan hartzen zaiolarik kontsumitutako kantitateari. Gehiegizko kontsumoa egin dela ulertzen da egun batean alkoholaren 65 gramotik gorako kontsumo baliokidea egitean.

GIB infekzio berriak: GIBaren infekzio berriak 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen artean adin-tarte bereko 10.000 laguneko.

Goi-mailako hezkuntza titulazioa: Ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa adin-tarte horretako biztanleriaren arabera. Titulazio tertzioaren baitakoak dira unibertsitateko gradu, master eta doktoretzak, eta baita goi-mailako prestakuntza-zikloak ere.

Haurdunaldien borondatezko etendurak: Haurdunaldien borondatezko etenduren zenbatekoa 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen ehunekoa.

Hauteskunde deialdietan parte hartzea: Azkeneko 3 urteetan hauteskunde-deialdiren batean botoa eman duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Hilero 600 eurotik gorako baliabide ekonomikoak: Hilero 600 eurotik gora duen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa

Hirueletasun-tasa: Ingelesa, euskara eta gaztelaniaz ondo hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Hutsik dauden etxebizitzak okupatzearen sostengua: Hutsik dauden etxebizitzak okupatzeari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Ikasketak bukatzean prestakuntzari lotutako enplegua izatea aurreikustea: Ikasketak bukatutakoan prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten 15 eta 29 urte bitarteko ikasleen ehunekoa.

Ikasketak, lana edota boluntario izateko atzerrira joan diren gazteak: Ikasketak, lana edota boluntario-lana betetzeko atzerrira joan diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Ikastetxeetan erlijioa irakastearen sostengua: Ikastetxeetan erlijioa irakasteari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Immigranteak etortzearen gaitzespena: Langile immigranteen etorrera debekatzearen aldeko diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Ingelesaren ezaguera: Ingeleseaz ondo hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Interneteko erabilera arazotsua: Internet modu arazotsu batean, Ormanen testaren arabera, erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Test hori 9 itemek osatutako tresna bat da, eta

lortutako puntuen arabera bereizten ditu erabiltzaileak ondoko hiru talde hauetan: Arazorik gabeak; Arriskuzko biztanleria; eta Erabilera arazotsuko pertsonak.

Intolerantzia ideologikoa: Berauen ideia edo balioak ez bezalakoak dituzten pertsonekin harremanetan Oso gogoz kontra edo Nahikoa gogoz kontra egoten diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Irakurtzeko ohitura: Azkeneko hilabeteko aisialdian libururen bat irakurri duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Jabetzako babes ofizialeko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteak: Jabetzako BOE etxebizitzan bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Jarduera artistikoetan partaidetza: Azkeneko urtean ondorengo jarduera artistiko hauetako bat burutu duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa: argazkilaritza, instrumenturen bat jotzea, pintura, dantza, idaztea, bideogintza, koru batean abestea, teatroa, bertsolaritza, beste arte plastikoak eta beste batzuek.

Jarduera fisikoa: Azkeneko zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (neurrizkoa edo bizia) egindako 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

Jardueraren tasa: Lan egin edo lan egiteko moduan dauden (beraz, bertan kontuan hartzen dira landun eta enplegu-bilaketa aktiboan jarduten duten langabetuak) 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

Kalean gauez ibiltzearen beldurra: Kalean gauez ibiltzearen beldurra bizi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Kanabisa legeztatzearen sostengua: Kanabisa legeztatzeari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Kirol-elkarteetako kideetza: Kirol-elkarteetako kide direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Kirol-jarduera erregularra: Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Kontsumo jasangarriaren indizea: Kontsumo jasangarriari loturiko ondorengo bost jokabide hauetatik gutxienez lau ohiko dituzten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: ontzi edo pakete gutxi erabilitako produktuak erosi, erosketetarako poltsa edo orga propioa eraman, hondarren araberrako zaborren banaketa, uraren kontsumoa murriztu eta garraio publikoa edo partekatutako autoa erabili.

Kontzertuetara joatea: Azkeneko hiru hilabeteetan kontzerturen batera joan den 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua: Urtebeteko epean enplegua galdu edo lan-baldintzak eskatea aski litekeena edo nahiko gertaeraz delat uste duten 16 eta 29 urte bitarteko landunen ehunekoa.

Lana lortzean genero-desberdintasunaren pertzepzioa: Prestakuntza eta esperientzia bera izan arren, lanpostu bat lortzeko mutil batek neska batek baino aukera gehiago duela sumatzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Lanaldi partzialeko enplegu-tasa: Lanaldi partzialean (astero 30 ordu baino gutxiago) lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako gazte okupatu guztien arabera.

Laneko ezbehar-kopuruaren indizea: Laneko istripen ondorioz baja hartutako 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak adin bereko 1.000 landuneko. Kontuan hartzen dira lantokian eta lanerako ibilbidean gertatzen diren istripuak.

Laneratzeko tasa LHko ikasketen ostean: Lanbide Heziketa bukatu eta 9 hilabeteren ostean lana duten pertsonen ehunekoa.

Laneratzeko tasa unibertsitateko ikasketen ostean: Unibertsitateko gradu-ikasketak bukatu osteko 3 urteetan lana duten pertsonen ehunekoa.

Langabezia tasa: Langabezia dauden 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona aktibo guztien arabera. Langabezia dauden pertsonak dira enplegurik ez izan arren, lan egiteko prest eta lana modu aktiboan bilatzen duten pertsonak (azkeneko lau asteotan burutu dute lan egiteko bilaketarako kudeaketaren bat); hau da, ez dira kontuan hartzen lanik bilatzen ez duten ikasle edota lanerako ezinduak.

Legezko sexu-aldaketarako sostengua: Legezko sexu-aldaketari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Lehenengo seme-alaba izatean batz besteko amatasunaren adina: Lehenengo seme-alaba izatean emakumeek duten batz besteko adina.

Lokala duten gazteak: Aisialdirako lokala duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Merkataritza elektronikoa: Azkeneko hiru hilabeteetan produktu edo zerbitzuak erosteko edo saltzeko asmoz Internet bitarteko merkataritza-transakzioak egin dituen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Merkatuko alokairu errentaren eta etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren arteko aldea: Zenbat euroko aldea dagoen alokairuko etxebizitzaren batez besteko alokairu-errentaren eta 18-34 urte bitarteko gazte batek, alokairua bere hileko soldata garbiaren % 30 baino gehiago erabili gabe ordaintzeko, etxebizitza alokatzeko gehieneko errenta onargarriaren artean.

Migrazio-saldoa: Immigrazio eta emigrazioaren zenbatekoen aldea (hurrenez hurren, jakineko lurralde bateko helburu eta jatorriak) 15 eta 29 urte bitarteko pertsonetan.

Nerabazaroko haurdunaldien tasa: Jaiotzen zenbatekoa gehi haurdunaldien borondatezko etenduren zenbatekoa 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean adin-tarte bereko 1.000 emakumeko.

Obesitate tasa: GMI (Gorputz Masaren Indizea) 30 baino altuagoa duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa. GMI kalkulatu da "Adierazitako pisua (kilotan) / adierazitako altuera (metro bitan) formularen bitartez.

Ohiko kanabis-kontsumoa: Inkesta aurretiko hilabeteetan kanabis egunero edo ia egunero (astean 4 egun edo gehiagotan) erre dutela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Ohiko tabako-kontsumoa: Ohiko tabako-erretzaile direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Okupazio tasa: Enplegua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona guztien arabera.

Osasun-maila eskasaren prebalentzia: Erregular, Txar edo Oso txar gisako osasun-mailako pertzepzioa duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Osasun-mailako arazo kronikoen prebalentzia: Kroniko, jarraitu, epe luzeko edota maiz gertatzen diren osasun-arazoak izaten dituzten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Pertsona atzerritar gehiegi izatearen pertzepzioa: Euskadin pertsona atzerritar gehiegi bizi dela irizten dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Pertsona atzerritarrekiko auzuneetako intolerantzia: Pertsona atzerritarrek auzotar izateak molestatuko lituzkeen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Pertsona homosexualakiko auzuneetako intolerantzia: Pertsona homosexualak auzotar izateak molestatuko lituzkeen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Pobrezia errealearen tasa: Pobrezia erreala pairatzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien arabera. PGDI metodologiaren arabera, pobrezia errealak kontuan hartzen ditu pobreziaren dimentsio batean edo bestean (mantentze edo metatzean) ageri diren oinarritzko premien estaldura nahikoa ez izateko arrisku-egoera horiek guztiak ez direnean egoki orekatzen biztanleen eguneroko bizimoduan ongizate-maila minimoa lortzeko, pobrezia bizipenen zerikusirik gabe. Adierazlea osatzean mantentze eta metatzearen adierazleen kokagunea kontuan hartzeaz gain, eskastasunaren beste osagai batzuek hartzen dira. Horietatik gehien nabarmentzen dira azken urtean agertu diren gabezia-egoerak.

Politikarekiko interesa: Politikan Oso edo Nahikoa interes duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Poztasun pertsonalaren indizea: Gaur egungo egoera pertsonalari 15 eta 29 urte bitarteko gazteek emandako batz besteko puntuazioa 0 eta 10eko eskalan kontuan izanik 0 Oso gaizki dela eta 10 Oso ondo dela.

Prestakuntzari lotutako lana: Prestakuntzari oso edo nahiko lotutako lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte langileen ehunekoa.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen sostengua: Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Sinesgabe edo agnostikoak diren gazteak: Sinesgabe, ateo, agnostiko edo axolagabe direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Soldatapeko langileen aldi baterako enplegu-tasa: Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin bereko soldatapeko guztien arabera.

Suizidioen ondoriozko heriotza tasa: Suizidioen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

Trafiko istripuen ondoriozko heriotza tasa: Trafiko-istripuen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

Ugalkortasun-tasa: 15 eta 29 urte bitarteko amengandik jaiotakoen zenbatekoa adin-tarte horretako 1.000 emakumeko

Zientzia eta teknologian graduatuen tasa: Zientzia, matematika edota teknologian ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen zenbatekoa aipatzen den urtean eta adin-tarte horretako 1.000 biztanleko.



3

ADIERAZLEEN FITXAK

DEMOGRAFIA ETA POPULAZIOA

1.1. Gazteria indizea

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen proportzioa biztanleria osoan.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 13,8


Taldekako datuak

		15-29 urte bitarteko biztanleria	Gazteria indizea (%)
EAE GUZTIRA		299.690	13,8
Lurralde Historikoa	Araba	45.677	14,3
	Bizkaia	156.557	13,6
	Gipuzkoa	97.456	13,8
Sexua	Gizonak	153.011	14,4
	Emakumeak	146.679	13,1
Nazionalitatea	Espainiarra	255.726	12,7
	Atzerritarra	43.964	27,3

Iturria: EUSTAT, Biztanleen Udal-eroldaren Estatistika

EAEko gazteen indizea % 13,8koa da 2013. urtean. Etorkinen artean gazteen proportzioa handiagoa da (% 27,3) espainiar nazionalitatea dutenen artean baino (% 12,7) eta apur bat altuagoa gizonezkoen artean (% 14,4) emakumeen artean baino (% 13,1), seguru asko azken horien bizi-luzetasun handiagoa dela-eta. Lurralde historikoen arabera, gazteen indizea apur bat altuagoa da Araban (% 14,3), Gipuzkoan eta Bizkaian baino.

Bilakaera



Iturria: EUSTAT, Biztanleen Udal-eroldaren Estatistika

Biztanleria gaztea pisua galtzen joan da pixkanaka, 2000. urtean % 22,2ra iristen zen eta 2013an, berriz, % 13,8ra.

DEMOGRAFIA ETA POPULAZIOA

1.1. Gazteria indizea

15 eta 29 urte bitarteko pertsonen proportzioa biztanleria osoan.

Beste erkidegoekiko alderaketa

	Biztanleria 15-29 urte	Gazteria indizea (%)
Andaluzia	1.506.975	17,9
Aragoi	205.103	15,2
Asturias	140.388	13,1
Balear uharteak	190.377	17,1
Kanariak	367.142	17,3
Kantabria	85.175	14,4
Gaztela eta Leon	364.310	14,5
Gaztela-Mantxa	368.297	17,5
Katalunia	1.181.391	15,6
Valentziako Erkidegoa	814.884	15,9
EAE	300.994	13,8
Extremadura	195.193	17,7
Galizia	391.208	14,1
Madrilgo Erkidegoa	1.052.307	16,2
Murtziako Eskualdea	262.662	17,8
Nafarroa	99.382	15,4
Errioxa	49.270	15,3
Ceuta	17.502	20,8
Melilla	18.001	21,5
ESPAINIA GUZTIRA	7.610.561	16,1

Iturria: INE. Estadística del Padrón Continuo

* Ezberdintasun metodologikoak direla eta EUSTAT eta INEren datuak ezberdinak dira.

EAEko gazteen indizea Espainiako (% 16,1) baxuenetarikoa da. Autonomia-erkidegoen artean Asturiasek (% 13,1) soilik du Euskadik baino gazteen indize baxuagoa eta, oro har, iparraldeko komunitateak dira –Galizia (% 14,1), Kantabria (% 14,4) eta Gaztela eta Leon (% 14,5)– indize baxuenak dituztenak.

Europarekiko alderaketa

	Biztanleria 15-29 urte	Gazteria indizea (%)
Alemania	14.014.593	17,1
Austria	1.571.760	18,6
Belgika	2.050.158	18,4
Danimarka	1.040.071	18,6
Espainia	7.508.878	16,1
Finlandia	1.001.766	18,5
Frantzia	11.852.690	18,1
Grezia	1.857.940	16,8
Irlanda	865.562	18,9
Italia	9.162.927	15,4
Luxenburgo	102.890	19,2
Herbehereak	3.072.928	18,3
Portugal	1.729.988	16,5
Erresuma Batua	12.582.366	19,7
Suedia	1.840.840	19,3
EB-15	70.255.357	17,5
EB-28	90.810.118	17,9
EAE	299.690	13,8

Iturria: EUROSTAT. Youth Indicators

Euskadi Europar Batasunean gazteen tasarik baxuenetarikoa duten eskualdeen artean dago. Hori horrela, biztanle gazteen pisu eskasak euskal egitura demografikoa Europa hegoaldeko herrialdeetako egiturara hurbiltzen du (Italia, Espainia, Portugal, Grezia...) eta iparraldeko herrialdeetatik urruntzen du, indizea ia % 50 altuagoa dutenetatik. EAEk Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztietakoa baino gazteen indize baxuagoa du.

DEMOGRAFIA ETA POPULAZIOA

1.2. Migrazio-saldoa

Immigrazio eta emigrazioaren zenbatekoen aldea (hurrenez hurren, jakineko lurralde bateko helburu eta jatorriak) 15 eta 29 urte bitarteko pertsonetan.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

4.136


Taldekako datuak

Migrazio-saldoa (Absolutuak)		
EAE GUZTIRA		4.136
Sexua	Gizonak	2.093
	Emakumeak	2.043
Adin tarteak	15-19	1.044
	20-24	1.448
	25-29	1.644

Iturria: EUSTAT, Migrazio-mugimenduen Estatistika

15 eta 29 urte arteko gazteen migrazio-saldoa EAEn 4.136 lagunekoa izan da 2012an, hau da, gazte gehiago sartu dira irten direnak baino.

Bilakaera



Iturria: EUSTAT, Migrazio-mugimenduen Estatistika. Datuak milakoetan

Migrazio-saldorik altuena 2007. urtean gertatu zen, EAera immigratutako gazteen kopuruak emigrazioak 8.496 lagunetan gaintu zituenean. Urte hartatik aurrera, beheranzko joera hasi zen, 2011ko gorakada arinak baino eten ez duena. Migrazio-saldoaren murrizketa, ordea, ez da emigrazioen gorakadari esker gertatu, krisia hasi zenetik immigrazioek beherantz egin dutelako baizik.

DEMOGRAFIA ETA POPULAZIOA

1.3. Ugalkortasun-tasa

15 eta 29 urte bitarteko amengandik jaiotakoen zenbatekoa adin-tarte horretako 1.000 emakumeko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

26,7 (1.000ko tasa)


Taldekako datuak

Ugalkortasun tasa (1.000 emakumeko)		
EMAKUME GAZTEAK GUZTIRA		26,7
Lurralde Historikoa	Araba	30,8
	Bizkaia	24,6
	Gipuzkoa	28,1
Adin tarteak	15-19	5,9
	20-24	18,8
	25-29	46,6

Iturria: INE. Estadísticas de Movimiento Natural de la Población

EAEko emakume gazteen ugalkortasuna 1.000 emakume gaztetik 26,7 jaiotzakoa da eta aurreko urtetik % 3,9 jaitsi da. Lurralde historikoen arabera, tasarik altuena Arabakoa da (% 30,8), baina Gipuzkoa da lurralde bakarra ugalkortasun-tasaren jaitsierarik izan ez duena, % 0,5eko igoerarekin.

Bilakaera eta 30-49 urte bitarteko emakumeekiko alderaketa



Iturria: INE. Estadísticas de Movimiento Natural de la Población

Gazteen ugalkortasun-tasak goranzko joera izan du 2008 arte, ondoren, pixkanaka beherantz joan da. 30 eta 49 urte arteko emakumeen ugalkortasun-tasa, aldiz, areagotu egin da 2010ean eta 2011n eta hori amatasunaren batez besteko adinaren atzerakadaren adierazle izan liteke. 2012an, gazteen, nahiz 30 urtetik gorakoen ugalkortasun-tasak behera egin zuen. Emakume gazteen ugalkortasuna 30 eta 49 urte artekoek dagokiena baino apur bat baxuagoa da.

DEMOGRAFIA ETA POPULAZIOA

1.3. Ugalkortasun-tasa

15 eta 29 urte bitarteko amengandik jaiotakoen zenbatekoa adin-tarte horretako 1.000 emakumeko.

Beste erkidegoekiko alderaketa

Ugalkortasun tasa (1000ko)	
Andaluzia	38,2
Aragoi	30,1
Asturias	25,4
Balear uharteak	36,3
Kanariak	32,9
Kantabria	27,7
Gaztela eta Leon	25,3
Gaztela-Mantxa	34,6
Katalunia	37,9
Valentziako Erkidegoa	32,9
EAE	26,7
Extremadura	30,7
Galizia	25,4
Madrilgo Erkidegoa	31,0
Murtziako Eskualdea	43,4
Nafarroa	30,9
Errioxa	33,1
Ceuta	62,9
Melilla	91,6
ESPAINIA GUZTIRA	34,0

Iturria: INE. Estadísticas de Movimiento Natural de la Población

EAEko ugalkortasun-tasa Espainiako baxuenen artean dago; Gaztela eta Leonen (% 25,3), Asturiasen (% 25,4) eta Galizian (% 25,4) soilik da baxuagoa. Kontrako muturrean egongo lirateke Melilla (% 91,6), Ceuta (% 62,9), Murtzia (% 43,4), Andaluzia (% 38,2) eta Katalunia (% 37,9). Azken urtean, Kanarietan (% +2,3) soilik areagotu da ugalkortasun-tasa. Espainian izandako beherakada % 4,1ekoa izan da, EAEkoa baino apur bat handiagoa.

Europarekiko alderaketa

Ugalkortasun tasa (1000ko)	
Alemania	43,0
Austria	48,6
Belgika	63,4
Danimarka	49,6
Espainia	34,3
Finlandia	58,1
Frantzia	67,6
Grezia	41,2
Irlanda	52,6
Italia	39,4
Luxenburgo	46,0
Herbehereak	49,1
Portugal	41,2
Erresuma Batua	65,8
Suedia	55,4
EB-15	51,5
EB-28	52,9
EAE	26,7

Iturria: EUROSTAT. Population data

Euskal gazteen ugalkortasun-tasa (% 26,7) EB-28ko batez bestekoen (52,9) azpitik dago. EB-15eko ugalkortasun-tasarik altuenak Frantzia (% 67,6), Erresuma Batua (% 65,8) eta Belgikari (% 63,4) dagozkie. Ugalkortasun-tasarik txikienak, berriz, Espainian (% 34,3), Italian (% 39,4), Grezian (% 41,2) eta Portugalen (% 41,2) jasotakoak dira. Kasu honetan ere, euskal gazteen datu demografikoek hegoaldeko herrialdeetakoekin antza handiagoa dute iparraldekoekin baino.

HEZKUNTZA

2.1. Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa

Gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditu (CINE 2) eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketa edo prestakuntzarik jaso gabeko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 8,0


Taldekako datuak

Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa (%)		
EAE GUZTIRA		8,0
Sexua	Gizonak	8,2
	Emakumeak	7,9

Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak

EAEko eskola uzte goiztiararen tasa % 8koa zen 2013an, aurreko urtean baino apur bat altuagoa. Eskola uzte goiztiarra gehiago ematen da gizonezkoen artean (% 8,2) emakumezkoen artean baino (% 7,9); hala ere, azken urtean tasa hori jaitsi egin da gizonezkoetan eta emakumeetan, berriz, igo.

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak


Euskadin eskola uzte goiztiararen tasan beherakada gertatzen ari dela nabarmendu behar da, 2008an % 14,1ekoa izatetik 2013an % 8koa izatera iritsi da. Murrizketa hori gizonezkoen eskola-porrotaren beherakadari zor zaio neurri handian, horien emaitzak emakumeenekin bat etorritik joan baitira azken urteetan. Emakumeen artean beti izan da txikiagoa eskola-porrota.

HEZKUNTZA

2.1. Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa

Gehienez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditu (CINE 2) eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketa edo prestakuntzarik jaso gabeko 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Bilakaera lurralde-eremuaren arabera



Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak

Eskola uzte goiztiarrak 18 eta 24 urte arteko Espainiako gazteen % 23,6 era-giten du; zifra hori EAEko % 8aren oso goitik dago. 2000. urteaz geroztik, nolabaiteko egonkortasuna egon da bi kasuetan 2008. urtera arte, gero, eskola uzte goiztiarraren murrizketa argia gertatu da, ziurrenik atzeraldi ekonomikoaren eta enplegu-eskaintza gutxitzearen ondorioz.

Europarekiko alderaketa

Eskola modu goiztiarrean utzitakoen tasa (%)	
Alemania	9,9
Austria	7,3
Belgika	11,0
Danimarka	8,0
Espainia	23,6
Finlandia	9,3
Frantzia	9,7
Grezia	10,1
Irlanda	8,4
Italia	17,0
Luxenburgo	6,1
Herbehereak	9,2
Portugal	19,2
Erresuma Batua	12,4
Suedia	7,1
EB-15	12,8
EB-28	12,0
EAE	8,0

Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak

2013an EBko herrialdeetako batez bestekoaren azpitik zegoen EAE, eskola uzte tasari dagokionez. Luxenburgok (% 6,1), Suediak (% 7,1) eta Austriak (% 7,3) soilik dituzte EAEk baino datu hobeak. Espainia (% 23,6), aldiz (azken urteetan behera egin duen arren), EB-15aren buruan kokatzen da alderdi horretan, Portugal (% 19,2) eta Italiaren (% 17) gainetik.

HEZKUNTZA

2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatuen tasa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko maila gutxienez lortu duen (CINE 3A, 3B eta 3C) 20 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 85,5


Taldekako datuak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatuen tasa (%)		
EAE GUZTIRA		85,5
Sexua	Gizonak	86,3
	Emakumeak	85,0

Iturria: EUSTAT, Euskadi 28 EBn

20 eta 24 urte arteko gazteen % 85,5ek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko ikasketak ditu EAEn. Ikasketa horietan graduatutako emakumeen kopurua % 85ekoa da eta gizonezkoena, berriz, % 86,3koa. 2013. urtean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko graduazio-tasak % 3,9 egin du gora, gizonezkoen artean gorakada nabarmenarekin (% 9,5).

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Euskadi 28 EBn


2009. urteaz geroztik, bigarren hezkuntzako graduazio-tasa gorantz joan da euskal gazteen artean, gorakada oso nabarmena izan ez bada ere. Gizon-emakumeen artean ere bat etortze argia gertatu da, gizonen artean graduazio-tasak gora egin duelako, baina ez emakumeen artean, hortaz, aurrez zeuden sexuen arteko aldeak desagertuz joan dira.

HEZKUNTZA

2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatuen tasa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko maila gutxienez lortu duen (CINE 3A, 3B eta 3C) 20 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Bilakaera lurralde-eremuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Euskadi 28 EBN

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko ikasketen tasari dagokionez, EA-Eko egoera (% 85,5) Espainiakoa (% 63,8) baino apur bat hobea da 2013an. 2001. urteaz geroztik, bilakaera nahiko orekatua gertatu da bi kasuetan adierazle horri dagokionez, nahiz eta EAEn 3,2 puntuko gorakada eta Espainian 1,2 puntuko beherakada gertatu den.

Europarekiko alderaketa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketetan graduatuen tasa (%)	
Alemania	76,8
Austria	87,4
Belgika	83,1
Danimarka	71,8
Espainia	63,8
Finlandia	85,9
Frantzia	86,4
Grezia	86,5
Irlanda	89,4
Italia	77,9
Luxenburgo	76,9
Herbehereak	78,2
Portugal	69,9
Erresuma Batua	82,9
Suedia	86,2
EB-28	81,0
EAE	85,5

Iturria: EUSTAT, Euskadi 28 EBN

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko graduazio-tasa apur bat altuagoa da EAEn (% 85,5) EB-28an baino (% 81). Euskadiko zifra Finlandia (% 85,9) eta Suediako (% 86,2) zifretatik gertu dago; Espainiak, aldiz, adierazle horretako baliorik baxuena erakusten du (% 63,8), Portugal (% 69,9) eta Danimarka (% 71,8) atzetik dituela.

HEZKUNTZA

2.3. Goi-mailako hezkuntza titulazioa

Ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa adin-tarte horretako biztanleriaren arabera. Titulazio tertzioaren baitakoak dira unibertsitateko gradu, master eta doktoretzak, eta baita goi-mailako prestakuntza-zikloak ere.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 44,2


Taldekako datuak

Goi mailako hezkuntza titulazioa (%)		
EAE GUZTIRA		44,2
Sexua	Gizonak	36,7
	Emakumeak	52,1

Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak

30 eta 34 urte arteko gazteen % 44,2k goi mailako ikasketetan titulua du EAEn. Portzentaje hori handiagoa da emakumeen artean (% 52,1) gizonen artean baino (% 36,7). Azken urtean, sexuen arteko alde hori apur bat areagotu da, goi mailako titulazioa duten emakumeen kopuruak gora egin baitu (% +0,6), gizonezkoenak behera egin duen bitartean (% -0,8).

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak


2000. urtetik aurrera, EAEn goi mailako ikasketak dituzten gazteen kopuruak gora egin du pixkanaka, % 30,5etik % 44ra. Denbora horretan eredu bat errepikatuz joan da eta horren arabera titulazioa duten gazteen portzentajea handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, bi taldeen arteko aldea egonkor mantendu bada ere.

HEZKUNTZA

2.3. Goi-mailako hezkuntza titulazioa

Ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa adin-tarte horretako biztanleriaren arabera. Titulazio tertzioaren baitakoak dira unibertsitateko gradu, master eta doktoretzak, eta baita goi-mailako prestakuntza-zikloak ere.

Bilakaera lurralde-eremuaren arabera



Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak

Goi mailako ikasketetan titulua dutenen portzentajea arinki altuagoa da EAEn (% 44,2) Espainian (% 42,3) baino. 2000. urtetik hona, bai EAEk, bai Espainiak, oro har, adierazle horren igoera jasan dute.

Europarekiko alderaketa

Goi mailako hezkuntza titulazioa (%)	
Alemania	33,1
Austria	27,3
Belgika	42,7
Danimarka	43,4
Espainia	42,3
Finlandia	45,1
Frantzia	44,1
Grezia	34,9
Irlanda	52,6
Italia	22,4
Luxenburgo	52,5
Herbehereak	43,1
Portugal	29,2
Erresuma Batua	47,6
Suedia	48,3
EB-15	38,2
EB-28	36,9
EAE	44,2

Iturria: EUSTAT, 2020 Europa adierazleak

EAEko goi mailako tituludunen portzentajea UE-28koa (% 36,9) baino altuagoa da 2013an. EB-15ean buru diren herrialdeen artean daude Irlanda (% 52,6), Luxenburgo (% 52,5), Suedia (% 48,3) eta Erresuma Batua (% 47,6) eta portzentajerik baxuenak, berriz, Italiak (% 22,4) eta Austriak (% 27,3) di-tuzte.

HEZKUNTZA

2.4. Zientzia eta teknologian graduatuen tasa

Zientzia, matematika edota teknologian ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen zenbatekoa aipatzen den urtean eta adin-tarte horretako 1.000 biztanleko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2010)

29,4 (1000ko tasa)


Taldekako datuak

Zientzia eta teknologian graduatuen tasa (1000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		29,4
Sexua	Gizonak	41,2
	Emakumeak	17,3

Iturria: ISEI-IVEI, Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema

2009-2010 ikasturtean, EAEn, 20 eta 29 urte arteko 1.000 gaztetik 29,4k eskuratu zuten hirugarren mailako ikasketa titulua zientzietan, matematikan eta teknologian, hau da, aurreko urtean baino % 10,5 gehiagok.

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: ISEI-IVEI, Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema

Titulazio mota hori eskuratu duen gizonezkoen tasa (% 41,2) emakumezkoena baino askoz ere altuagoa da (% 17,3) eta alde hori areagotu egin zen, gainera, 2010ean aurreko urteekin alderatuta.

HEZKUNTZA

2.4. Zientzia eta teknologian graduatuen tasa

Zientzia, matematika edota teknologian ikasketa tertziarioak (CINE 5A, 5B eta 6) burutu dituzten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen zenbatekoa aipatzen den urtean eta adin-tarte horretako 1.000 biztanleko.

Beste erkidegoekiko alderaketa

Zientzia eta teknologian graduatuen tasa (1000ko tasa)	
Andaluzia	11,5
Aragoi	15,4
Asturias	19,6
Balear uharteak	4,7
Kanariak	6,9
Kantabria	16,3
Gaztela eta Leon	18,7
Gaztela-Mantxa	8,4
Katalunia	17,7
Valentziako Erkidegoa	14,9
EAE	29,4
Extremadura	11,1
Galizia	17,1
Madrilgo Erkidegoa	22,3
Murtziako Eskualdea	12,7
Nafarroa	23,0
Errioxa	11,7
Ceuta	4,0
Melilla	3,3
ESPAINIA GUZTIRA	13,9

Iturria: ISEI-IVEI, Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema

EAE zientzia eta teknologian graduatutako gazteen daturik onena (% 29,4) duen autonomia-erkidegoa da eta lasai gaintitzen du estatuko batez bestekoa (% 13,9). Atzetik dituen komunitateen artean daude Nafarroa (% 23) eta Madril (% 22,3). Adierazle horretan azkenak kokatuta daude Melilla (% 3,3), Ceuta (% 4), Balearrak (% 4,7) eta Kanariak (% 6,9)

Europarekiko alderaketa

Zientzia eta teknologian graduatuen tasa (1000ko tasa)	
Alemania	14,8
Austria	15,5
Belgika	12,2
Danimarka	16,5
Espainia	13,9
Finlandia	24,2
Frantzia	21,7
Grezia	12,8
Irlanda	20,1
Italia	11,3-
Luxenburgo	3,1
Herbehereak	9,2
Portugal	14,4
Erresuma Batua	18,7
Suedia	14,0
EAE	29,4
EB-27	15,4

*Italiako datua 2008koa da

Iturria: ISEI-IVEI, Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema

Zientzia eta teknologiako titulazioan Euskadi EB-27aren mailatik (% 15,4) oso gora dago. Atzetik jarraitzen diote Finlandiak (% 24,2), Frantziak (% 21,7) eta Irlandak (% 20,1).

HEZKUNTZA

2.5. Hirueletasun-tasa

Ingelesa, euskara eta gaztelaniaz ondo hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2009)

% 26,0


Taldekatuak

Hirueletasun-tasa (%)		
EAE GUZTIRA		26,0
Lurralde Historikoa	Araba	22,0
	Bizkaia	27,1
	Gipuzkoa	25,9
Sexua	Gizonak	29,9
	Emakumeak	22,3
Adin tartekak	15-19	32,2
	20-24	29,6
	25-29	18,8

Iturria: EUSTAT, Bizi Baldintzen Inkesta

EAEko gazteen hirueletasun-tasa % 26koa zen 2009. urtean. Lurralde historikoen arabera, Bizkaia du hirueletasun-tasarik handiena (% 27,1) eta Gipuzkoak (% 25,9) eta Arabak (% 22) jarraitzen diote. Hirueletasun-tasa pixka bat altuagoa da gizonezkoen artean (% 29,9) emakumezkoen artean baino (% 22,3) eta horrek gora egiten du biztanleria gazteagoa den heinean, beraz, etorkizunean goranzkoa izango da joera.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Bizi Baldintzen Inkesta

Hamar urtetan, gazteen hirueletasun-tasa nabarmen hazi da Euskadin, 1999an % 9,3 izate-tik 2009an % 26 izatera igaro da. Biztanlerian ere nolabaiteko hazkundea gertatu da, hain nabarmena izan ez bada ere, baina gazteen eta biztanleriaren arteko aldeak nabarmen hazi dira. 2009an, gazteen hirueletasun-tasa biztanleriarena (% 8,8), oro har, baino askoz ere altuagoa zen.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.1. Jardueraren tasa

Lan egin edo lan egiteko moduan dauden (beraz, bertan kontuan hartzen dira landun eta enplegu-bilaketa aktiboan jarduten duten langabetuak) 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 50,7


Taldekako datuak

Jardueraren tasa (%)		
EAE GUZTIRA		50,7
Lurralde Historikoa	Araba	51,6
	Bizkaia	50,1
	Gipuzkoa	51,3
Sexua	Gizonak	49,2
	Emakumeak	52,3
Adin tarteak	16-24	28,4
	25-29	82,6

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

16 eta 29 urte arteko euskal gazteen erdia (% 50,7) lanean ari da edo lan egiteko moduan dago. Ez dago alde handirik jarduera-tasari dagokionean lurralde historikoen edo sexuen arabera; emakumeen artean tasa hori apur bat altuagoa bada ere (% 52,3). Adin-tartearen arabera, jarduera-tasa % 82,6koa da 25 eta 29 urte artean dituztenen artean, 16 eta 24 urte artean dituztenena baino askoz ere altuagoa, gehienek ikasten jarraitzen baitute adin-tarte horretan.

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)


Hamabi urtetan, 2001etik, euskal gazteen jarduera-tasak hamabi puntu egin du behera, % 62,1etik % 50,7ra; gazteek lan-mundutik ikasketen mundura atzera egin dutela nolabait erakusten du horrek. Beherakada hori handiagoa izan da gizonezkoen artean; hain zuzen ere, emakumezkoen jarduera-tasa altuagoa zuten 2013an.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.1. Jardueraren tasa

Lan egin edo lan egiteko moduan dauden (beraz, bertan kontuan hartzen dira landun eta enplegu-bilaketa aktiboan jarduten duten langabetuak) 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

EAEn jarduera-tasa historikoki altuagoa izan da gazteen artean gainerako biztanleriaren artean baino. Hala ere, 2010. urtetik jarduera-tasa altuagoa izatera igaro da biztanleriaren artean, oro har, gazteen artean baino, ziur asko hezkuntza-etapa luzatzearen ondorioz, atzeraldiko testuinguruan lan-aukerak gutxitu egin direlako.

Europarekiko alderaketa

Jardueraren tasa (%)	
Alemania	50,9
Austria	59,3
Belgika	31,0
Danimarka	61,7
Espainia	37,8
Finlandia	51,8
Frantzia	37,5
Grezia	28,4
Irlanda	39,7
Italia	27,2
Luxenburgo	25,9
Herbehereak	70,0
Portugal	35,0
Erresuma Batua	58,7
Suedia	54,5
EB-15	45,1
EB-28	42,2
EAE	28,4

*EB eta Espainiako datuak: 15-24 urte. EAE datuak: 16-24 urte.

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) / EUROSTAT, Labour Market Data.

Alderatzeko xedearekin 15 eta 24 urte artekoak soilik kontuan hartuz gero, euskal gazteen jarduera-tasa EB-28ko batez bestekoa (% 42,2) eta Espainiako batez bestekoa (% 37,8) baino askoz ere txikiagoa dela ikusiko dugu. EB-15ean, gazteen jardueratararik altuenak Herbehereei (% 70), Danimarkari (% 61,7) eta Austriari (% 59,3) dagozkie; EAEn baino bi aldiz jarduera-tasa al-tuagoa dute.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.2. Okupazio tasa

Enplegua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 35,9


Taldekako datuak

Okupazio tasa (%)		
EAE GUZTIRA		35,9
Lurralde Historikoa	Araba	34,6
	Bizkaia	34,5
	Gipuzkoa	38,8
Sexua	Gizonak	33,3
	Emakumeak	38,6
Adin tartearak	16-24	17,3
	25-29	62,6

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

2013an 3 gaztetik bat baino gehiago lanean ari zen (% 35,9). Okupazio-tasarik altuena Gipuzkoari (% 38,8) dagokio eta horren atzetik daude Araba (% 34,6) eta Bizkaia (% 34,5). Sexuen arabera, emakumezkoen okupazio-tasa altuagoa da (% 38,6) gizonezkoena baino (% 33,3) eta 25 urtetik gorakoen artean ere hala da.

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)


2006an, 16 eta 29 urte artekoen okupazio-tasa ia % 55ekoa zen. Zazpi urtetan 20 puntu egin du behera, % 35,9raino; krisi ekonomikoak lan-munduan txertatzeko gazteen aukerak zein neurritan eragin dituen erakusten du horrek. Generoen arteko aldearen ikuspegitik, beherakada apur bat handiagoa izan da gizonezkoentzat (20 puntukoa eta zazpi puntukoa emakumezkoentzat).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.2. Okupazio tasa

Enplegua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona guztien arabera.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

2007. urtera arte, gazteen okupazio-tasa biztanleriarena baino 1-2 puntu altuagoa izan da. 2008tik aurrera, ordea, gazteen enplegu-tasak nabarmen egin du okerrera, 2013an biztanleria totalarena baino 12,6 puntu azpitik kokatzeraino. Hori horrela, adierazle horren bilakaerak gazteen kolektiboak krisian enpleguari dagokionez jasandako zigorrik handiena erakusten du, ratioa 1etik 0,7ra igarota.

Europarekiko alderaketa

Okupazio tasa (%)	
Alemania	58,1
Austria	64,9
Belgika	42,2
Danimarka	60,5
Espainia	32,6
Finlandia	53,2
Frantzia	44,7
Grezia	25,0
Irlanda	43,0
Italia	28,2
Luxenburgo	35,8
Herbehereak	70,4
Portugal	37,6
Erresuma Batua	59,1
Suedia	55,2
EB-15	47,9
EB-28	46,2
EAE	35,9

* EB eta Espainiako datuak: 15-24 urte. EAE datuak: 16-24 urte.

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) / EUROSTAT, Labour Market Data.

Euskal gazteen okupazio-tasa Europako batez bestekoaren oso azpitik dago; hala ere, Espainia osoari dagokiona (% 32,6) baino apur bat altuagoa da. EB-15ean, gazteen okupazio-tasarik altuenak herrialde hauei dagozkie: Herbehereak (% 70,4), Austria (% 64,9) eta Danimarka (% 60,5). Baxuenak, berriz, Grezia (% 25), Italia (% 28,2) eta Espainiari (% 32,6) dagozkie. Egitura demografikoarekin gertatzen den antzera, beraz, euskal gazteen lan-egoerak Europa hegoaldeko herrialdeekin antza handiagoa du iparraldekoekin eta kontinentearen erdialdekoekin baino.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.3. Langabezia tasa

Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona aktibo guztien arabera. Langabezian dauden pertsonak dira enplegurik ez izan arren, lan egiteko prest eta lana modu aktiboan bilatzen duten pertsonak (azkeneko lau asteotan burutu dute lan egiteko bilaketarako kudeaketaren bat); hau da, ez dira kontuan hartzen lanik bilatzen ez duten ikasle edota lanerako ezinduak.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 29,2


Taldekatuak

Langabezia tasa (%)		
EAE GUZTIRA		29,2
Lurralde Historikoa	Araba	32,9
	Bizkaia	31,2
	Gipuzkoa	24,3
Sexua	Gizonak	32,3
	Emakumeak	26,2
Adin tarteak	16-24	39,2
	25-29	24,2

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

EAEko gazteen langabezia-tasa % 29,2koa zen 2013an, Gipuzkoa izanik tasarik baxuena zuen lurralde historikoa (% 24,3). Sexuen arabera, gizonezkoen langabezia-tasa (% 32,3) emakumezkoena (% 26,2) baino apur bat altuagoa da eta adinaren arabera, tasarik altuena 16 eta 24 urte artekoena da (% 39,2).

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)


2007 eta 2013 artean gazteen langabezia-tasak 20 puntu baino gehiago egin zuen gora. Hazkunde horren heren bat 2012 eta 2013 artean gauzatu zen. urteetan emakume gazteen langabezia tasa gizon gazteena baino altuago zen arren, krisiarekin hasierak horri amaiera eman zion. 2008tik aurrera, langabezia tasa gizonen artean altuago izaten hasi da, 2013an emakumeen langabezia-tasa baino 6 puntu gehiago izanik.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.3. Langabezia tasa

Langabezian dauden 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin-tarte bereko pertsona aktibo guztien arabera. Langabezian dauden pertsonak dira enplegurik ez izan arren, lan egiteko prest eta lana modu aktiboan bilatzen duten pertsonak (azkeneko lau asteotan burutu dute lan egiteko bilaketarako kudeaketaren bat); hau da, ez dira kontu-an hartzen lanik bilatzen ez duten ikasle edota lanerako ezinduak.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

2001. eta 2007. urteen artean, gazteen langabezia-tasa murrizten joan zen eta, aldi berean, oro har, biztanleriaren langabezia-tasarekiko aldea ere arinki murriztu zen. Dena den, prozesu hori itzuli egin da 2008. urtetik aurrera, gazteen artean langabezia areagotu egin baita, 2013an biztanleriaren langabezia-tasa bikoizteraino.

Europarekiko alderaketa

Langabezia tasa (%)	
Alemania	7,3
Austria	8,0
Belgika	16,5
Danimarka	11,9
Espainia	42,4
Finlandia	15,1
Frantzia	18,4
Grezia	48,7
Irlanda	20,5
Italia	29,6
Luxenburgo	11,0
Herbehereak	9,5
Portugal	28,9
Erresuma Batua	14,8
Suedia	17,2
EB-15	18,9
EB-28	18,8
EAE	29,2

* EB eta Espainiako datuak: 15-29 urte. EAE datuak: 16-29 urte.

Iturria EUSTAT, Población en Relación con la Actividad (PRA) / EUROSTAT, Labour Market Data.

16 eta 29 urte arteko gazte euskaldunen langabezia-tasak (% 29,2) EB-28ko batez bestekoa gainditzen duen arren (% 18,8), Espainiakoa (% 42,4) baino baxuagoa da. Gazteen langabezia-tasaren lehen postuetan daude: Grezia (% 48,7), Espainia (% 42,4), Portugal (% 28,9) eta Italia (% 29,6). Tasarik baxuenak, berriz, hauei dagozkie: Alemania (% 7,3), Austria (% 8,0), Herbehereak (% 9,5), Luxenburgo (% 11,0) eta Danimarka (% 11,9).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.4. Epe luzeko langabezia tasa

Jarraiko hamabi hilabete baino gehiago langabezia dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona aktibo guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 11,7


Taldekako datuak

Epe luzeko langabezia tasa (%)		
EAE GUZTIRA		11,7
Lurralde Historikoa	Araba	12,5
	Bizkaia	13,1
	Gipuzkoa	9,3
Sexua	Gizonak	12,0
	Emakumeak	11,5
Adin tarteak	16-24	14,1
	25-29	10,6

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

EAEko gazteen epe luzeko langabezia-tasa % 11,7koa zen 2013. urtean. Tasarik altuena Bizkaikoa da (% 13,1), ondoren Arabakoa (% 12,5) eta azkenik, baxuena Gipuzkoakoa (% 9,3) da. Sexu eta adin-tartearen arabera alde handirik ez dago; epe luzeko langabezia-tasarik handiena 16 eta 24 urte arteko gazteena da (% 14,1).

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)


2007an eta 2008an hondar mailetaraino erori ostean, epe luzeko langabezia-tasa asko hazi da krisiaren ondorioz eta bereziki 2012 eta 2013 artean. Horri dagokionez, ezin hitz egin liteke generoen arteko alde handiez, baina bai antzeman liteke lehen emakumezkoen artean altuagoa zen epe luzeko langabezia-tasa parekatzen joan dela azken urteetan.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.4. Epe luzeko langabezia tasa

Jarraiko hamabi hilabete baino gehiago langabezia dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona aktibo guztien arabera.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Aurreko hamarkadaren hasieran, epe luzeko langabezia-tasa arinki altuagoa zen gazteen artean gainerako biztanleriaren artean baino. Hazkunde-garaietan, aldeak murriztuz joan ziren, baina krisiaren ondorioz eta gazteen egoerak okerrera egitearen ondorioz, horien epe luzeko langabezia biztanleria osoarena baino % 40 altuagoa izatera iritsi da berriro ere.

Europarekiko alderaketa

Epe luzeko langabezia tasa (%)	
Alemania	1,9
Austria	1,2
Belgika	5,5
Danimarka	1,5
Espainia	17,8
Finlandia	1,1
Frantzia	5,5
Grezia	29,1
Irlanda	9,7
Italia	15,9
Luxenburgo	1,8
Herbehereak	1,8
Portugal	12,2
Erresuma Batua	4,5
Suedia	1,4
EB-15	6,9
EB-28	7,1
EAE	11,7

*Espainia eta EBko datuak: 15-29 urte. EAE datuak: 16-29 urte.

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) / EUROSTAT, Labour Market Data.

EAEko 15 eta 29 urte arteko gazteen epe luzeko langabezia-tasa (% 11,7) Espainiakotik (% 17,8) behera dago, baina EB-28ko (% 7,1) batez bestekoaren gainetik. Herrialdeen arabera, tasarik altuenak herrialde hauei dagozkie: Grezia (% 29,1), Espainia (% 17,8), Italia (% 15,9) eta Portugal (% 12,2). Baxuenak, berriz, hauei: Finlandia (% 1,1), Austria (% 1,2), Suedia (% 1,4), Danimarka (% 1,5), Luxenburgo (% 1,8) eta Herbehereak (% 1,8).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.5. Soldatapeko langileen aldi baterako enplegu-tasa

Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin bereko soldatapeko guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 56,8


Taldekako datuak

Aldi baterako enplegu-tasa (%)		
EAE GUZTIRA		56,8
Sexua	Gizonak	56,1
	Emakumeak	57,3
Adin tarteak	16-24	69,4
	25-29	51,8

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Soldatapeko gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok (% 56,8) aldi baterako lan-kontratua zuen 2013an. Tasarik altuena 16 eta 24 urte dituztenen artean dago (% 69,4) eta 25 eta 29 urte artean dituztenen artean, berriz, behin-behinekotasunak soldatapekoen erdia inguru eragiten du (% 51,8).

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)


Soldatapeko gazteen behin-behinekotasun tasak nabarmen egin du gora 2009az geroztik. Geroaren ikuspegitik, behin-behinekotasun tasak joera berari eutsi dio gizon-emakumeen artean 2001. eta 2013. urteen artean. Aipatzekoa da, hala ere, behin-behinekotasuna apur bat altuagoa zela gizonezkoen artean 2001-2004 artean eta krisia hasi ostean, emakumeen artean pixka bat altuagoa izatera iritsi zela.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.5. Soldatapeko langileen aldi baterako enplegu-tasa

Aldi baterako kontratua duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, adin bereko soldatapeko guztien arabera.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Gazteen behin-behinekotasun tasari dagokionez, aurkako bilakaera eragin du krisiak, biztanleriaren bilakae-rarekin alderatuta. 2013an biztanlerian erregistratutako behin-behinekotasun tasa (% 21,4), aldi bateko en-pleguaren suntsiketaren ondorioz, 2001ekoaren azpitik bazegoen ere, gazteen artean behin-behinekotasun tasa 2013an (% 56,8) hamar urte lehenagokoaren antzekoa zen. Ildo horretatik, gazteen behin-behinekotasun tasa biztanleria orokorraren bikoitza izatetik ia hirukoitza izatera igaro zen.

Europarekiko alderaketa

Aldi baterako enplegu-tasa (%)	
Alemania	39,1
Austria	24,4
Belgika	20,2
Danimarka	19,7
Espainia	49,3
Finlandia	34,3
Frantzia	39,8
Grezia	19,8
Irlanda	22,2
Italia	39,6
Luxenburgo	22,4
Herbehereak	43,9
Portugal	48,0
Erresuma Batua	10,4
Suedia	41,7
EB-15	32,5
EB-28	31,5
EAE	56,8

*Espainia eta EB datuak: 15-29 urte. EAE datuak: 16-29 urte.

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) / EUROSTAT, Labour Market Data.

Euskadiko gazteen behin-behinekotasun tasak (% 56,8) Espainiako (% 49,3), nahiz Europako (% 31,5) tasak gainditzen ditu. Hain zuzen ere, taulako altuena da. Behin-behinekotasun tasarik baxuena Erresuma Batukoa (% 10,4) da.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.6. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa

Lanaldi partzian (astero 30 ordu baino gutxiago) lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako gazte okupatu guztien arabera.


Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 21,2

Taldekako datuak

Lanaldi partziala (%)		
EAE GUZTIRA		21,2
Lurralde Historikoa	Araba	22,9
	Bizkaia	21,2
	Gipuzkoa	20,1
Sexua	Gizonak	15,1
	Emakumeak	26,3
Adin tarteak	16-24	33,3
	25-29	16,4

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Oharra: sexua, lurralde historikoa eta adin taldeen arabeko datuek lagin errore altua dute

2013an, lanean dagoen ia bost gaztetik bat lanaldi partzian aritzen da (% 21,2).

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Lanaldi partzialaren pisuak goranzko joera erakusten du, bai gazteengan, bai biztanleria-rengan, oro har; eta 2013an gorakada nabarmena jasan zuen. Lanaldi partzialeko langileen tasa handiagoa da gazteen artean (% 21,2) gainerako biztanleen artean baino (% 13,9) eta badirudi bi kolektibo horien arteko arrakala handituz doala azken urteetan, 2013an alde hori ia hamar punturaino iritsiz.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.6. Lanaldi partzialeko enplegu-tasa

Lanaldi partzian (astero 30 ordu baino gutxiago) lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte horretako gazte okupatu guztien arabera.

Europarekiko alderaketa

Lanaldi partziala (%)	
Alemania	21,2
Austria	20,2
Belgika	19,1
Danimarka	51,7
Espainia	26,5
Finlandia	27,0
Frantzia	18,0
Grezia	13,9
Irlanda	30,2
Italia	23,2
Luxenburgo	16,9
Herbehereak	63,3
Portugal	15,5
Erresuma Batua	29,2
Suedia	36,6
EB-15	26,7
EB-28	22,8
EAE	21,2

*Espainia eta EB datuak: 15-29 urte. EAE datuak: 16-29 urte.

Iturria: EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) / EUROSTAT, Labour Market Data.

Lanaldi partzialeko enpleguaren pisua EB-28ko batez bestekoaren inguruan (% 22,8) dago Euskadin (% 21,2) eta EB-15 (% 26,7) eta Espainiako (% 26,5) batez bestekoetatik apur bat beherago. Herrialdeen arabera, lanaldi partzialak Herbehereetan eta Danimarkan du pisurik handiena, hain zuzen ere, gazteen enplegu gehienak lanaldi partzialekoak dira herrialde horietan (% 63,3 eta % 51,7, hurrenez hurren). Aurrakako muturrean daude Grezia (% 13,9), Portugal (% 15,8) eta Luxenburgo (% 16,9).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.7. Ikasketak bukatzean prestakuntzari lotutako enplegua izatea aurreikustea

Ikasketak bukatutakoan prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten 15 eta 29 urte bitarteko ikasleen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 46,0

Taldekako datuak

Prestakuntzari lotutako enplegua (%)		
EAE GUZTIRA		46,0
Lurralde Historikoa	Araba	45,5
	Bizkaia	43,4
	Gipuzkoa	52,9
Sexua	Gizonak	50,9
	Emakumeak	40,4
Adin tarteak	15-19	51,4
	20-24	43,0
	25-29	35,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

15 eta 29 urte arteko ikasleen % 46ak ikasketak amaitzean ikasketekin lotutako enplegua bilatzeko itxaropena du. Lurralde historikoen arabera, itxaropen hori duten gazteen portzentajerik handiena Gipuzkoari dagokio (% 52,9), Araba (% 45,5) eta Bizkaia (% 43,4) atzetik dituela; horrek lotura izan dezake lurralde historiko bakoitzeko langabezia mailarekin. Kopuru hori handiagoa da gizonezkoen artean (% 50,9) emakumezkoen artean (% 40,4) baino eta behera egiten du adinak gora egin ahala.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.8. Prestakuntzari lotutako lana

Prestakuntzari oso edo nahiko lotutako lana duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte langileen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua(2013)

% 52,2


Taldekako datuak

Bilakaera

Prestakuntzari lotutako lana (%)		
EAE GUZTIRA		52,2
Lurralde Historikoa	Araba	48,5
	Bizkaia	52,3
	Gipuzkoa	53,7
Sexua	Gizonak	54,3
	Emakumeak	50,0
Adin tarteak	16-24	50,7
	25-29	52,9
Ikasketa maila	Oinarrizkoak	38,3
	Bigarren hezkuntza-koak	55,3
	Goi mailakoak	63,9
Maila soziala	Altua	52,8
	Erdikoa	58,2
	Baxua	41,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea

2013an, lanean ari diren gazteen erdia inguru (% 52,2) bere prestakuntzarekin zerikusia duen posturen batean dabil. Gizonezkoen artean (% 54,3) portzentajea handiagoa da eta ikasketa mailak gora egin ahala, portzentajeak ere gora egiten du. Lehen mailako ikasketak dituztenek eta behe mailako klase-koek dute prestakuntzarekin lotutako enpleguaren portzentajerik txikiena.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea

Prestakuntzarekin lotutako enplegua zuten gazteen ehunekorik altuena 2011. urtean jaso zen, guztizkoaren % 55,2a. 2013an, ordea, ehuneko hori % 52,2ra jaitsi zen. Nolanahi ere, ezin esan liteke krisiak nabarmen aldatu du-enik aldeaz aurreko prestakuntzarekin lotutako lanpostuetan dabilzan gazteen kopurua.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.9. Laneko ezbehar-kopuruaren indizea

Laneko istripen ondorioz baja hartutako 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak adin bereko 1.000 landuneko. Kontuan hartzen dira lantokian eta lanerako ibilbidean gertatzen diren istripuak.


Eskuragarri dagoen azken datua(2013)

35 (1.000ko tasa)

Taldekako datuak

Laneko ezbehar kopuruaren indizea (1000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		35,0
Lurralde Historikoa	Araba	44,9
	Bizkaia	34,0
	Gipuzkoa	32,2
Sexua	Gizonak	51,4
	Emakumeak	18,8

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: OSALAN, Lan ez beharren estatistikak / EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

EAEko gazteen laneko ezbehar-tasaren indizea lanean ari diren 16 eta 34 urte arteko 1.000 laguneko 35 istripukoa da. Tasa askoz ere handiagoa da gizonen kasuan (% 51,4) emakumeen kasuan baino (% 18,8).

Iturria: OSALAN, Lan ez beharren estatistikak / EUSTAT, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

2001az geroztik, gazteen laneko ezbehar-tasaren indizeak beheranzko joera izan du, horrela, 2013an (% 35) 2001ean baino (% 83,8) erdia baino gutxiagokoa zen. Biztanlerian izandakoaren antzeko joera izan da, nabarmenagoa izan den arren, hortaz, gazteen eta biztanleria totalaren arteko laneko ezbehar-tasaren belaunaldi arteko arrakala murrizten joan da.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.10. Bere kontura lan egiten dutenen tasa

Bere kontura lan egiten duten (enpresaburu eta autonomoak) 20 eta 29 urte bitarteko pertsona gazteen ehunekoa adin bereko pertsona landun guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 9,5


Taldekako datuak

Bere kontura lan egiten dute (%)		
EAE GUZTIRA		9,5
Lurralde Historikoa	Araba	7,5
	Bizkaia	11,1
	Gipuzkoa	7,5
Sexua	Gizonak	8,5
	Emakumeak	10,5
Adin tarteak	20-24	6,5
	25-29	10,9

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea

20 eta 29 urte arteko lanean ari diren 10 gazte euskaldunetik ia bat autonomo edo enpresari gisa ari zen lanean 2013an. Lurralde Historikoen arabera, Bizkaian (% 11,1) tasa handiagoa da Araban edo Gipuzkoan baino (bieten % 7,5). Gainera, norberaren konturako lanaren proportzioa handiagoa da emakumeen artean (% 10,5), baita 25 eta 29 urte arteko gazteen artean ere (% 10,9).

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea


2004. eta 2011. urteen artean, gazteen norberaren konturako okupazio-tasa handiagoa izan da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino. 2013an, ordea, emakumeen norberaren konturako okupazio-tasak gora egin zuen (% 10,5) gizonen gainetik kokatu arte (% 8,5).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.10. Bere kontura lan egiten dutenen tasa

Bere kontura lan egiten duten (enpresaburu eta autonomoak) 20 eta 29 urte bitarteko pertsona gazteen ehunekoa adin bereko pertsona landun guztien arabera.

Bilakaera eta okupatutako biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea / EUSTAT, Biztanleria Jarduaren Arabera (BJA)

Azken hamarkadan, norberaren konturako enplegu-tasak ia ez du aldaketarik jasan enplegatutako euskal biztanleriaren artean, baina gazteen kasuan % 3,3 egin du gora. Hala eta guztiz ere, norberaren konturako enplegu-tasak askoz ere altuagoa izaten jarraitzen du biztanleriaren artean (% 16,2), gazteen artean baino (% 9,5) eta horrek zerikusia izan dezake 30 urte edo gehiagokoen lan-esperientziarekin, horrek abantaila suposatzen baitu ekin-tzailatzarako.

Europarekiko alderaketa

Bere kontura lan egiten dute (%)	
Alemania	3,3
Austria	3,8
Belgika	8,0
Danimarka	3,2
Espainia	7,9
Finlandia	5,5
Frantzia	4,8
Grezia	16,0
Irlanda	3,8
Italia	15,5
Luxenburgo	4,3
Herbehereak	7,4
Portugal	5,4
Erresuma Batua	7,5
Suedia	4,2
EB-15	6,6
EB-28	7,0
EAE	9,5

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea / EUROSTAT, Labour Market Data.

Euskal gazteen norberaren konturako enplegu-tasa (% 9,5) Espainiakoa (% 7,9), EB-15ekoa (% 6,6) eta EB-28koa (% 7) baino handiagoa da. Greziak (% 16,0) eta Italiak (% 15,5) soilik dute tasa altuagoa. Bestalde, tasarik txikiak Europa iparraldeko eta erdialdeko herrialdeei dagozkie, hala nola Danimarka (% 3,2), Alemania (% 3,3), Austria (% 3,8) eta Irlandari (% 3,8).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.11. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua

Urtebeteko epean enplegua galdu edo lan-baldintzak eskatea aski litekeena edo nahiko gertaeraza dela uste duten 16 eta 29 urte bitarteko landunen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 57,0


Taldekako datuak

30 urte baino gehiagoko biztanleriarekiko alderaketa

Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (%)		
EAE GUZTIRA		57,0
Lurralde Historikoa	Araba	55,0
	Bizkaia	57,9
	Gipuzkoa	54,1
Sexua	Gizonak	54,9
	Emakumeak	58,7
Adin tarteak	16-24	65,2-
	25-29	54,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

Lanean ari diren gazteen % 57k lana galtzeko edo lan-baldintzek okerrera egiteko arrisku handia antzematen du. Portzentajerik handiena Bizkaian (% 57,9), emakumeen artean (% 58,7) eta 16 eta 24 urte arteko biztanleriaren artean (% 65,2) ematen da.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

29 urtez gorakoekin (% 46,2) alderatuta, gazteek (% 57) segurtasun falta handiagoa erakusten dute etorkizunean enplegua eusteari eta/edo lan-baldintzei dagokienez.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.12. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea

Etorkizunean joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitea emigratu beharko dutela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua(2013)

% 16,2


Taldekako datuak

30 urte baino gehiagoko biztanleriarekiko alderaketa

Derrigorrez emigratu beharra aurreikusten duten gazteak (%)		
EAE GUZTIRA		16,2
Lurralde Historikoa	Araba	12,9
	Bizkaia	17,1
	Gipuzkoa	16,3
Sexua	Gizonak	17,5
	Emakumeak	14,8
Adin tartearak	15-19	19,6
	20-24	17,5
	25-29	12,8

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

Gazteen % 16,2k etorkizunean gogoz kontra atzerrira joan beharko duela lan egitera pentsatzen du. Bizkaian (% 17,1) eta Gipuzkoan (% 16,3) portzentajea handiagoa da Araban (% 12,9) baino. Horrez gain, portzentajea handiagoa da gizonetan (% 17,5), emakumeetan baino (% 14,8) eta gora egiten du adinak behera egin ahala, % 19,6raino iritsiz 20 urtez azpikoen artean.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

29 urtetik gorakoekin (% 3,5) alderatuta, gazteek (% 16,2) gogoz kontra emigratu beharren itxaropen handiagoa dute eta hori tokiko lan-merkatuan dituzten aukerei buruzko ezkontasun handiagoaren adierazle da.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.13. Hilero 600 eurotik gorako baliabide ekonomikoak

Hilero 600 eurotik gora duen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 23,8


Taldekako datuak

Hilero 600€ baino gehiago ()		
EAE GUZTIRA		23,8
Sexua	Gizonak	23,3
	Emakumeak	24,4
Adin tarteak	15- 19	1,7
	20-24	17,3
	25-29	44,9
Jarduera nagusia	Ikasten du	4,4
	Lan egiten du	60,9
	Langabea	18,5
Emantzipazioa	Ez	13,
	Bai	54,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea

2013an lau gazte euskaldunetik batek (% 23,8) baino ez ditu 600 eurotik gora hilean. Portzentajea handiagoa da adinak gora egiten duen heinean, kolektiboak lan-munduan duen txertaketa handiagoa dela-eta. Nolanahi ere, aipagarria da lan egiten dutenen % 60,9k edo independenteki bizi direnen % 54k soilik izatea kopuru horretatik gorako ahalmen ekonomikoa.

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea

Hilean 600 eurotik gora duten gazteen proportzioa 2008an iritsi zen gehienera (% 35,2), 2000. urteaz geroztiko pixkanakako igoeraren ostean. Hala eta guztiz ere, 2011n eta 2013an portzentaje horrek behera egin zuen, 2013an (% 23,8) 2000koa (% 25,9) baino txikiagoa izateraino.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.14. Etxebizitza gazteen pobrezia-arriskua

PGDI metodologiaren arabera, mantentze-pobrezia arriskuan dauden 35 urte azpiko erreferentziatzko pertsona buru duten etxebizitzetan bizi den biztanleriaren ehunekoa. Mantentzearen dimentsioko pobrezia-arriskuko egoeretan kontuan hartzen dira oinarriko edo ezinbesteko diren premiei aurre egiteko ez eskuragarri izatea diru-sarrera ekonomikoa nahikoa, bereziki ohiko elikadura-gastua, etxebizitza, jantzi edota oinetakoetan.


Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 20,2

Taldekako datuak

Pobrezia arriskua (%)		
EAE GUZTIRA		20,2
Lurralde Historikoa	Araba	15,1
	Bizkaia	23,7
	Gipuzkoa	18,3
Sexua	Gizonak	18,7
	Emakumeak	21,6

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkesta (PGDI)

EAEEn, 35 urtetik beherakoak buru dituzten etxebizitzetan bizi direnen % 20,2 pobrezia-arriskuko egoeran dago. Bizkaia da portzentajerik altuena duen lurraldea, gazteen etxebizitzetan % 23,7 pobrezia-arriskuan dago; atzetik datoz Gipuzkoa (% 18,3) eta Araba (% 15,1). Pobrezia-arriskuan dauden etxebizitzetan ehunekoa altuagoa da emakume gazteak buru direnean (% 21,6), aldeak oso nabarmenak ez badira ere.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkesta (PGDI)

1996. eta 2008. urteen artean pobrezia-arriskuko tasak behera egin zuen, bai gazteak buru ziren etxebizitzetan, bai gainerako etxebizitzetan; alabaina, gazteak buru zirenetan murrizketa ez zen hain nabarmena izan. 2008. eta 2012. urteen artean, gorakada gertatu zen etxebizitza mota guztietan; hala ere, are nabarmenagoa izan zen gazteak buru ziren etxebizitzetan. Horren ondorioz, belaunaldien arteko arrakalak, pobrezia-arriskuari dagokionez, hazten jarraitu du eta 1,2 aldiz handiagoa izatetik 2,5 aldiz handiagoa izatera iritsi da.

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.15. Pobrezia errearen tasa

Pobrezia erreala pairatzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien arabera. PGDI metodologiaren arabera, pobrezia erreala kontuan hartzen ditu pobreziaren dimentsio batean edo bestean (mantentze edo metatzean) ageri diren oinarritzko premien estaldura nahikoa ez izateko arrisku-egoera horiek guztiak ez direnean egoki orekatzen biztanleen eguneroko bizimoduan ongizate-maila minimoa lortzeko, pobrezia bizipenen zerikusirik gabe. Adierazlea osatzean mantentze eta metatzearen adierazleen kokagunea kontuan hartzeaz gain, eskastasunaren beste osagai batzuek hartzen dira. Horietatik gehien nabarmentzen dira azken urtean agertu diren gabezia-egoerak.


Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 8,4

Taldeko datuak

Pobrezia erreala (%)		
EAE GUZTIRA		8,4
Lurralde Historikoa	Araba	6,9
	Bizkaia	10,5
	Gipuzkoa	6,1
Sexua	Gizonak	8,2
	Emakumeak	8,6
Adin tarteak	16-19	6,7
	20-24	8,0
	25-29	10,0

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkesta (PGDI)

EAE, gazteen % 8,4 benetako pobrezia-egoeran dago. Bizkaiko pobrezia-tasa (% 10,5) Arabakoa (% 6,9) eta Gipuzkoakoa (% 6,1) baino altuagoa da eta gora egiten du adinak ere gora egiten duen heinean.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkesta (PGDI)

1999 eta 2004 artean, pobrezia-tasak behera egin zuen, bai gazteen, bai biztanleriaren artean, eta ondoren, bi kasuetan gora egin du. Pobrezia-arriskuarekin gertatu bezala, beherakada handiagoa da biztanleriaren kasuan eta ondorengo gorakada arinagoa. Horren ondorioz, belaunaldien arteko arrakala areagotuz joan da adierazle horri dagokionean ere, 1,6ko ratoria helderaino (hau da, gazteen pobreziak 1,6 aldiz biderkatzen du biztanleriarena).

ENPLEGUA ETA EGOERA EKONOMIKOA

3.16. Estalitako pobreziaren tasa

Estalitako pobrezia pairatzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien arabera. PGDI metodologiaren arabera, estalitako pobreziak bere baitan hartzen ditu epe motzean (urtebete baino gutxiago) egungo etxebizitzatik independente bizitzeko asmoa izan arren, mantentze-pobrezia pairatzeko arriskuan daude diru-sarrera nahikorik ez dutelako.


Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 8,1

Taldekako datuak

Estalitako pobrezia (%)		
EAE GUZTIRA		8,1
Lurralde Historikoa	Araba	10,7
	Bizkaia	10,4
	Gipuzkoa	3,3
Sexua	Gizonak	7,4
	Emakumeak	8,7
Adin tartekak	15-19	1,5
	20-24	12,1
	25-29	8,6

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkesta (PGDI)

EAEEn, gazteen % 8,1 ezkutuko pobrezia-egoeran dago. Tasarik altuena Arabakoa (% 10,7) eta Bizkaikoa da (% 10,4), Gipuzkoan dezenteko baxuagoa (% 3,3) da. Ezkutuko pobrezia emakumeen artean (% 8,7) eta 20 eta 24 urte artekoen artean (% 12,1) ere apur bat altuagoa da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasun Inkesta (PGDI)

Ezkutuko pobreziak behera egin zuen 1996 eta 2008 artean, bai gazteen, bai biztanleriaren artean. 2008. urtetik aurrera, ezkutuko pobreziaren tasak nabarmen egin du gora bi kasuetan eta 2012an gazteen artean ia lau aldiz handiagoa da biztanlerian baino.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.1. Emantzipazio tasa

Emantzipatuta bizi den 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa adin bereko pertsona guztien arabera. Emantzipatutako pertsonak dira jatorriko etxebizitzatik kanpo bizi diren pertsonak, oinarritzat hartzen delarik BAIren baitan “erreferentziatzeko pertsona”, “ezkontide” eta “ahaidetasunik gabeko pertsona” agertzen diren horiek.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 43,5

Taldekako datuak

Emantzipazio tasa (%)		
EAE GUZTIRA		43,5
Lurralde Historikoa	Araba	46,8
	Bizkaia	41,5
	Gipuzkoa	45,3
Sexua	Gizonak	40,3
	Emakumeak	46,7
Adin tarteak	18-24	7,0
	25-29	43,5
	30-34	74,2

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

18 eta 34 urte arteko euskal gazteen % 43,5 gurasoengandik emantzipatuta zegoen 2013an. Emantzipazio-tasarik altuena Arabakoa da (% 46,8) eta atzetik datoz Gipuzkoa (% 45,3) eta Bizkaia (% 41,5). Emantzipazio-tasa handiagoa da emakumeen kasuan (% 46,7), gizonen kasuan baino (% 40,3) eta gora egiten du adinak ere gora egin ahala, % 74,2raino iritsiz 30 eta 34 urte artean dituztenen kasuan.

Bilakaera eta Espainiarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

2013. urtean, EAEko emantzipazio-tasa (% 43,5) ia Espainiako bera zen (% 43,7) eta 2007ko zifratik 2,6 puntu gorago zegoen. Espainian, berriz, emantzipazio-tasak behera egin du 2007. urtearekin alderatuta.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.2. Emantzipaziorako batez besteko adina

Jatorriko familiarekiko bizikidetzat eteten den batez besteko adina.

Eskuragarri dagoen azken datua (2011)

29,9 urte


Taldekako datuak

Emantzipaziorako batez besteko adina (urteak)		
EAE GUZTIRA		29,9
Lurralde Historikoa	Araba	29,4
	Bizkaia	30,8
	Gipuzkoa	28,9
Sexua	Gizonak	30,8
	Emakumeak	28,8

Iturria: EUSTAT, Inkesta demografikoa

Bizilekua EAEn dutenen emantzipaziorako batez besteko adina 29,9 urtekoa da. Lurralde Historikoen araberrako alde handirik ez dagoen arren, emantzipatzeko batez besteko adinik altuena Bizkaikoa da (30,8 urte), ondoren Arabakoa (29,4) eta, azkenik, Gipuzkoakoa (28,9). Batez beste, emakumeak (28,8 urterekin) gizonak (30,8) baino lehenago emantzipatzen dira.

Bilakaera eta Espainiaren alderaketa



Iturria: EUSTAT, Inkesta demografikoa / EUROSTAT, Youth Indicators

Azken 20 urteetan, emantzipatzeko batez besteko adina 3,6 urte atzeratu da EAEn eta gorakadarik handiena 2001. urtean erregistratu zen. 2011n, emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin 29,9 urtekoa zen, Espainiako 28,5 urteko batez bestekoa baino altuagoa.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.2. Emantzipaziorako batez besteko adina

Jatorriko familiarekiko bizikidetzaren eteten den batez besteko adina.

Europarekiko alderaketa

Emantzipaziorako batez besteko adina (urteak)	
Alemania	24,0
Austria	25,6
Belgika	25,4
Danimarka	21,0
Espainia	28,5
Finlandia	21,9
Frantzia	23,6
Grezia	28,8
Irlanda	25,5
Italia	29,7
Luxenburgo	25,9
Herbehereak	23,4
Portugal	28,6
Erresuma Batua	23,5
Suedia	20,3
EB-28	26,2
EAE	29,9

Iturria: EUSTAT, Inkesta demografikoa / EUROSTAT, Youth Indicators

EB-15eko herrialdeen artean, EAEk emantzipatzeko batez besteko adin berantiarra erakusten du (29,9), baita EB-28koa (26,2) baino berantiarra ere. Hortaz, EAEko emantzipatzeko batez besteko adina Europa hegoaldeko herrialdeetako antzekoa da, hala nola Italia (29,7), Grezia (28,8), Espainia (28,5) eta Portugalekoaren (28,6) antzekoa. Herri nordikoetan, aldiz, gazteak goizago emantzipatzen dira gurasoen etxetik, Suedian (20,3), Danimarkan (21) edo Finlandian (21,9), kasu.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.3. Alokairuko emantzipazioa

Alokairu-erregimenean bizi den 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 49,4


Taldekako datuak

Alokairuko emantzipazioa (%)		
EAE GUZTIRA		49,4
Lurralde Historikoa	Araba	44,2
	Bizkaia	52,2
	Gipuzkoa	47,3
Sexua	Gizonak	49,9
	Emakumeak	49,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

EAEn, emantzipatutako gazteen % 49,4 alokairuan bizi zen 2013an. Alokairuko emantzipazio-portzentajerik altuena Bizkaikoa da (% 52,2), ondoren Gipuzkoakoa (% 47,3) eta, azkenik, Arabakoa (% 44,2).

Bilakaera eta Espainiarekiko alderaketa



*Espainiako 2006ko balorea 2007koa da.

Iturria: EUSTAT. Inkesta Demografikoa (1991, 2006 eta 2011ko datuak) / Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea (2013ko datua) / INE. Encuesta de condiciones de vida.


1991. urteaz geroztik, alokairuko etxebizitzan bizi diren emantzipatutako gazteen proportzioa boskoiztu egin da EAEn. 2011n alokairuan emantzipatutako gazteen proportzioa Espainian (% 26,3) EAEn baino apur bat txikiagoa zen, baina 2006az geroztik gorakada izan du.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.3. Alokairuko emantzipazioa

Alokairu-erregimenean bizi den 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Europarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Inkesta Demografikoa / INE, Encuesta de condiciones de vida / EUROSTAT, EU-SILC.

2011ko datuen arabera, Euskadi (% 31), Espainiarekin (% 26,3) eta Italiarekin (% 3,8) batera, alokairuan emantzipatutako gazteen proportziorik txikienetakoa duen lurraldea da. Beste herrialde batzuetan, aldiz, ohikoagoa da gazteak alokairuko etxebizitzetara emantzipatzea, Frantzian (% 60,9), Erresuma Batuan (% 58,7) edo Finlandian (% 54,9), kasu.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.4. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea

Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean burutzerik izango ez duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, dela gurasoen etxebizitzatik aldegitia ezinezko dutelako, dela desiratu gabe bertara itzuli behar direlako.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 45,2

Taldekako datuak

Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (%)		
EAE GUZTIRA		45,2
Lurralde Historikoa	Araba	39,7
	Bizkaia	49,8
	Gipuzkoa	40,8
Sexua	Gizonak	45,1
	Emakumeak	45,2
Adin tarteak	15-19	45,5
	20-24	61,1
	25-29	32,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

15 eta 29 urte arteko gazteen % 45,2k urtebetean emantzipatzeko itxaropena zapuztuta ikusten du. Lurralde historikoen arabera, Bizkaia da emantzipatzeko desioa betetzeko aukerarik ikusten ez duen gazteen portzentajerik handiena duen lurraldea (% 49,8); oso urrunetik jarraitzen diote Gipuzkoak (% 40,8) eta Arabak (% 39,7). Portzentajea antzekoa da bi sexuetan eta bereziki altua 20 eta 24 urte bitartean (% 61,1); izan ere, adin horretan emantzipatzeko nahia (adin txikiagoetan ez dago hain presente) eta egi bihurtzeko aukera bat etortzen dira eta hori egingarriagoa bilakatzen da adinean gora egin ahala.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.5. Etxebizitza librea alokatzearen kostua

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen merkatu libreko etxebizitza baten alokairua ordaintzera (bazter utzirik bestelako gastu gehigarriak, hala nola, fidantzak, hornidura-altak, bitartekarien ordainsariak...).

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 59,0


Taldekako datuak

Etxebizitza alokatzearen kostua (soldataren %)		
EAE GUZTIRA		59,0
Lurralde Historikoa	Araba	53,7
	Bizkaia	57,9
	Gipuzkoa	60,9
Sexua	Gizonak	53,9
	Emakumeak	65,2
Adin tarteak	18-24	100,5
	25-29	60,7
	30-34	50,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

Alokairu libreko merkatuan sartzeko batez besteko kostua gazteen batez besteko diru-sarreraren % 59an zegoen 2013. urtean. Kostu hori –soldatari da-gokionean– handiagoa da Gipuzkoako gazteen kasuan (% 60,9) eta segidan daude Bizkaia (% 57,9) eta Araba (% 53,7). Sexuaren arabera, kostua askoz ere handiagoa da emakumeen (% 65,2) eta gazteen kasuan (18-24 urte); horien artean diru-sarrerak gaindi ditzake (% 100,5).

Bilakaera eta Espainiarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

2007. urteaz geroztik, alokairuko merkatuan sartzeko kostua 10,2 puntu jaitsi da EAEko gazteentzat eta 18,2 puntu Espainiako gazteentzat. EAEko gaz-teek Espainiakoei baino soldataren zati handiagoa bideratu behar zuten alokairua ordaintzeko 2013an, % 59 eta % 47,8, hurrenez hurren.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.6. Etxebizitza librea jabetzan hartzearen kostua

18-34 urte bitarteko gazte soldatadun batek bere hileko soldata garbiaren zer proportzio bideratu beharko lukeen familia bakarreko etxebizitza libre bat, berria zein bigarren eskukoa, erosteko hipotekaren lehen kuota ordaintzera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 62,8

Taldekako datuak

Etxebizitza jabetzaren hartzearen kostua (soldataren %)		
EAE GUZTIRA		62,8
Lurralde Historikoa	Araba	54,2
	Bizkaia	60,0
	Gipuzkoa	70,5
Sexua	Gizonak	57,4
	Emakumeak	69,5
Adin tarteak	18-24	110,5
	25-29	66,7
	30-34	55,2

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

Etxebizitza jabetzan eskuratzeko batez besteko kostua EAEko gazteentzat diru-sarreraren % 62,8koa da. Kostua –soldata-kostuari dagokionez– handiagoa da Gipuzkoan bizi diren gazteentzat (% 70,5), Araban bizi direnentzat baino (% 54,2). Sexuaren arabera, kostua handiagoa da emakumeentzat (% 69,5, gizonezkoen % 57,4ren aldean) eta adinaren arabera, kostua handiagoa da kolektibo gazteenentzat; hori horrela, 18 eta 24 urte arteko gazteek beren diru-sarreraren % 110,5 bideratu beharko lukete jabetzako etxebizitzaren hipotekako lehen kuota ordaintzera.

Bilakaera eta Espainiarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea

2007 eta 2013 urteen artean, jabetzako etxebizitza eskuratzeko kostua nabarmen jaitsi da gazte euskaldunentzat merkatu librean: 2007an diru-sarreraren ia % 100 (% 98,9) bideratu behar zuten hipotekaren lehen kuota ordaintzera eta 2013an, berriz, portzentajea % 62,8ra jaitsi da. Espainiako gazteentzat etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua EAEko gazteentzat (% 62,8) baino % 12,1 baxuagoa da eta, era berean, beherakada nabarmena gertatu da 2007tik.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.7. Etxebizitzako kostuak ordaintzeko gehiegizko esfortzua

Etzeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago ohiko etxebizitzaren alokairua edo hipoteka ordaintzera bideratzen duten 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa adin-tarte bereko emantzipatutako gazte guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 21,4


Taldekako datuak

Etxebizitzarako gehiegizko esfortzua (%)		
EAE GUZTIRA		21,4
Lurralde Historikoa	Araba	17,8
	Bizkaia	24,3
	Gipuzkoa	18,3
Sexua	Gizonak	18,5
	Emakumeak	23,8
Adin tarteak	18-24	23,6
	25-29	21,1
	30-34	21,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea.

Emantzipatutako gazteen % 21,4k diru-sarreraren % 40tik gora etxebizitzaren alokairua edo hipoteka-kuota ordaintzera bideratzen du. Gehiegizko esfortzu hori egiten duten gazteen ehuneko handiena Bizkaiari dagokio (% 24,3) eta horren atzetik daude Gipuzkoa (% 18,3) eta Araba (% 17,8). Gehiegizko esfortzu hori ohikoagoa da emakumeen (% 23,8) eta 25 urtetik beherakoen kasuan (% 23,6); izan ere, batez beste diru-sarrera txikiagoak dituzte.

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea.

2011 eta 2013 artean, gazte euskaldunek etxebizitzako kostuak ordaintzeko egindako gehiegizko esfortzua gutxitu egin da, 2011n % 25,9 izatetik 2013an % 21,4 izatera, nagusiki etxebizitzaren prezioek eta interes-tasek behera egin dutelako.

EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA

4.8. Etxegabeko gazteen arreta tasa

Etxegabeko pertsonen zentroetan artatutako 18 eta 29 urte bitarteko gazteen zenbatekoa adin-tarte berean erroldatutako 1.000 laguneko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

2,8 (1.000ko tasa)


Taldekako datuak

Etxegabeko gazteen arreta (1000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		2,8
Lurralde Historikoa	Araba	2,1
	Bizkaia	3,0
	Gipuzkoa	2,8
Sexua	Gizonak	4,4
	Emakumeak	1,1
Adin tarteak	18-24	3,1
	25-29	2,5
Nazionalitatea	Espainiarra	0,4
	Atzerritarra	15,9
	Europa	1,3
	Afrika	57,8
	Amerika	1,6
	Besteak	7,3

Iturria: EUSTAT, Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta / INE, Estadística del Padrón Continuo

EAEn etxebizitzarik ez dutenentzako zentroetan artatutako gazteen tasa 1.000 lagunetik 2,8koa zen 2012an. Lurralde historikoen arabera, tasarik altuena Bizkaikoa da (% 3), jarraian Gipuzkoakoa (% 2,8) eta Arabakoa (% 2,1) azkenik; horrez gain, gizonezkoen tasa (% 4,4) altuagoa da emakumezkoena (% 1,1) baino. Aipagarria da etxebizitzarik ez duten atzeritar gazteen tasa, % 15,9koa. Datu hori afrikar jatorriko kolektiboari zor zaio nagusiki, % 57,8ko tasa baitu.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: EUSTAT, Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta / INE, Estadística del Padrón Continuo

Etxebizitzarik ez duten pertsonentzako zentroetan artatutako gazteen tasak gora egin du 2005 eta 2012 artean, % 1,7 izatetik % 2,8 izateraino. Zentro horietan artatutako biztanleriaren tasa (adin guztiak kontuan hartuta) 2005ean % 0,9koa izatetik 2012an % 1,0koa izatera igaro da, hau da, gorakada ez da gazteen artean bezain nabarmena izan. 2012an, artatutako gazteen tasak ia hirukoiztu egiten zuen tasa orokorra eta horrek gazteek kolektibo horretan duten pisua nabarmentzen du.

OSASUNA

5.1. Osasun-maila eskasaren prebalentzia

Erregular, Txar edo Oso txar gisako osasun-mailako pertzepzioa duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 4,6


Taldekako datuak

Osasun maila eskasaren prebalentzia (%)		
EAE GUZTIRA		4,6
Lurralde Historikoa	Araba	3,1
	Bizkaia	4,4
	Gipuzkoa	5,6
Sexua	Gizonak	3,9
	Emakumeak	5,2
Adin tarteak	15-19	1,5
	20-24	3,2
	25-29	7,2
Maila soziala	Altua / Erdi-altua	3,1
	Baxua / Erdi-baxua	6,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

Beren osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra moduan definitzen duten EAEko gazteen portzentajea 2013an % 4,6koa zen. Alde nabarmenak antze-maten dira aztertutako aldagaien arabera eta portzentajerik txikienak hauen artean ematen dira: Araban bizi direnak (% 3,1), gizonetzkoak (% 3,9), gazteak (% 1,5) eta goi mailako klasekoak edo klase goi ertainekoak (% 3,1).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

2002 eta 2013 urteen artean, EAEn ia ez da aldatu osasuna erdipurdiko, txar edo oso txar moduan antzematen duten gazteen portzentajea. Biztanlerian, ordea, portzentaje horrek behera egin du, 2002an % 37,2 izatetik 2013an % 20,3 izatera igaro da; hala ere, gazteen kolektiboaren eta biztanleriaren arteko distantziak oso handia izaten jarraitzen du.

5.1. Osasun-maila eskasaren prebalentzia

Erregular, Txar edo Oso txar gisako osasun-mailako pertzepzioa duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Europarekiko alderaketa

Osasun maila eskasaren prebalentzia (%)	
Alemania	9,4
Austria	7,5
Belgika	7,2
Danimarka	13,2
Espainia	4,9
Finlandia	12,6
Frantzia	9,3
Grezia	2,7
Irlanda	6,5
Italia	5,7
Luxenburgo	8,5
Herbehereak	7,0
Portugal	17,7
Erresuma Batua	9,8
Suedia	8,9
EB-28	8,0
EAE (2013)	4,6

*Espainia eta EBko datuak 16 eta 29 urte bitarteko gazteenak dira.

Iturria: EUROSTAT, Youth Indicators.

EAE (% 4,6) EB-15eko gainerako herrialde gehienek azpian kokatzen da gazteen arteko osasun txarraren prebalentziari dagokionez; Greziak soilik gainditzen du (% 2,7) eta Espainiako balioak oso gertu dago (% 4,9). Baliorik handienak, berriz, Portugal (% 17,7), Danimarka (% 13,2), Finlandia (% 12,6) eta Erresuma Batuari (% 9,8) dagozkie.

5.2. Antsietate- eta depresio-arazoen prebalentzia

Antsietate edo/eta depresio-arazoak dituzten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 13,7


Taldekako datuak

Antsietatea eta depresioa (%)		
EAE GUZTIRA		13,7
Lurralde Historikoa	Araba	10,9
	Bizkaia	13,3
	Gipuzkoa	15,7
Sexua	Gizonak	9,0
	Emakumeak	18,7
Adin tarteak	15-19	11,6
	20-24	16,0
	25-29	13,1
Maila soziala	Altua / Erdi-altua	12,9
	Baxua / Erdi-baxua	14,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

EAEko gazteen % 13,7k antsietate- eta depresio-arazoak ditu 2013an. Portzentajerik altuena Gipuzkoakoa da (% 15,7), ondoren Bizkaikoa (% 13,3) eta, azkenik, Arabakoa (% 10,9). Sexuaren arabera, emakumeen artean portzentajea askoz ere altuagoa da (% 18,7) eta adin-tartearen arabera, intzidentziarik handiena 20 eta 24 urte artean gertatzen da (% 16). Antsietate- eta depresio-arazoen prebalentzia ere handiagoa da behe mailako klasekoen edo klase ertain baxukoaren artean (% 14,5).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

Antsietate- eta depresio-arazoen prebalentzia apur bat areagotu da gazte euskaldunen artean 2002. eta 2013. urteen artean. Biztanleria orokorraren artean, aldiz, gorakada handiagoa izan da, bereziki 2007 eta 2013 artean –atzeraldi ekonomikoarekin bat etorrira–. Hortaz, gazteen eta biztanleria orokorraren arteko aldea apur bat areagotu da.

OSASUNA

5.3. Obesitate tasa

GMI (Gorputz Masaren Idiea) 30 baino altuagoa duten 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa. GMI kalkulatzen da "Adierazitako pisua (kilotan) / adierazitako altuera (metro bitan) formularen bitartez.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 5,4


Taldekatuak

Obesitate tasa (%)		
EAE GUZTIRA		5,4
Lurralde Historikoa	Araba	6,3
	Bizkaia	6,5
	Gipuzkoa	3,4
Sexua	Gizonak	6,0
	Emakumeak	4,8
Adin tarteak	15-19	4,0
	20-24	3,8
	25-29	7,4
Maila soziala	Altua / Erdi-altua	3,5
	Baxua / Erdi-baxua	7,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

EAEko gazteen obesitate-tasa % 5,4koa zen 2013. urtean. Lurralde Historikoen arabera, obesitate-tasarik handiena Bizkaian (% 6,5) eta Araban (% 6,3) ematen da; Gipuzkoan, berriz, baxuagoa da (% 3,4). Era berean, obesitateak gizonezkoei (% 6) eta 25 eta 29 urte arteko gazteei (% 7,4) eragiten die gehien. Klase sozialaren arabera, goi mailako klasearekin edo klase goi ertainarekin alderatuta (% 3,5), obesitate-tasa bikoitza baino gehiago da behe mailako klasean edo klase ertain baxuan (% 7,4).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

Obesitate-tasak gora egin du pixkanaka, 2002an % 3,4koa zen eta 2013an, berriz, % 5,4koa. Biztanleriaren artean ere obesitate-tasak gora egin du eta gazteen artean baino askoz ere altuagoa da. 2013an, biztanleriaren obesitate-tasak gazteena ia hirukoiztu egiten zuen, % 13,2koa izanik.

OSASUNA

5.4. Jarduera fisikoa

Azkeneko zazpi egunetan jarduera fisiko osasungarria (neurritzkoa edo bizia) egindako 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa adin-tarte horretako pertsona guztien arabera.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 75,3


Taldekako datuak

Jarduera fisikoa (%)		
EAE GUZTIRA		75,3
Lurralde Historikoa	Araba	76,1
	Bizkaia	74,5
	Gipuzkoa	76,1
Sexua	Gizonak	78,8
	Emakumeak	71,6
Adin tarteak	15-19	79,1
	20-24	76,6
	25-29	72,1
Maila soziala	Altua / Erdi-altua	76,4
	Baxua / Erdi-baxua	74,2

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

EAEko 4 gazteren artean 3k ariketa fisiko osasungarria egiten dute. Adierazle honen baitako alde nabarmenenak sexuaren eta adinaren arabekoak dira; gizonezkoengan (% 78,8) ohikoagoa da ariketa fisikoa egitea emakumezkoengan baino (% 71,6) eta adinean gora egin ahala, orduan eta txikiagoa da ariketa fisiko osasungarria egiten dutenen portzentajea.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, EAEko Osasun Inkesta

Ariketa fisiko osasungarria egiten dutenen proportzioak gora egin du, 2007an % 67,6 izatetik 2013an % 75,3 izatera iritsi da. Biztanleriaren artean ere gora egin du jarduera fisikoak, gazteen artean baino gutxiago bada ere; hortaz, 2013an biztanleria totalaren datua (% 69,3) gazteenaren azpitik ze-goien (% 75,3).

OSASUNA

5.5. Ohiko tabako-kontsumoa

Ohiko tabako-erretzaile direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 23,5


Taldekako datuak

Ohiko tabako kontsumoa (%)		
EAE GUZTIRA		23,5
Sexua	Gizonak	26,6
	Emakumeak	20,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

EAEko gazteen % 23,5ek tabakoa erre ohi duela aitortzen du, gizonezkoen portzentajea (% 26,6) emakumezkoena baino handiagoa izanik (% 20,4).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

1992az geroztik beheranzko joera argia izan da tabakoaren kontsumoan euskal gazteen alde-tik eta beherakada hori bereziki nabarmendu da 2006tik aurrera. Erretzaileen proportzioa historikoki gazteen artean handiagoa izan da biztanleriaren artean baino; hala eta guztiz ere, 2012an erretzen dutenen proportzioa biztanlerian (% 25,7) gazteen artean (% 23,5) baino handiagoa izatera iritsi zen.

5.6. Gehiegizko alkohol-kontsumoa

Gehiegizko edo arriskuzko alkohol-kontsumoa egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, dela lanegunetan, dela jaiegun edo asteburuetan, betiere kontuan hartzen zaiolarik kontsumitutako kantitateari. Gehiegizko kontsumoa egin dela ulertzen da egun batean alkoholaren 65 gramotik gorako kontsumo baliokidea egitean.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 24,5


Taldekako datuak

Gehiegizko alkohol kontsumoa (%)		
EAE GUZTIRA		24,5
Sexua	Gizonak	32,6
	Emakumeak	16,6
Asteko egunak	Lan egunak	1,8
	Asteburua	24,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

EAEko gazteen % 24,5ek alkohol gehiegi kontsumitzen du edo alkoholaren kontsumo arriskutsua egiten du. Gizonezkoen alkoholaren gehiegizko kontsumoaren tasak (% 32,6) emakumeena ia bikoiztu egiten du (% 16,6).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

1992. eta 2000. urteen artean, alkoholaren gehiegizko kontsumoak behera egin zuen pixkanaka, bai gazteen artean, bai biztanleriaren artean. Dena den, 2000. urtetik aurrera gorakada nabarmena gertatu da alkoholaren gehiegizko kontsumoa egiten dutenen artean, 2012an –gazteen kasuan– duela 20 urteko zifrak gaitzertzeraino. Nolanahi ere, gazteek egiten duten alkoholaren gehiegizko kontsumoa biztanleria totalaren gainetik mantendu da serie guztian zehar.

OSASUNA

5.7. Ohiko kanabis-kontsumoa

Inkesta aurretiko hilabeteen kanabis egunero edo ia egunero (astean 4 egun edo gehiagotan) erre dutela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 4,3


Taldekako datuak

Ohiko kanabis kontsumoa (%)		
EAE GUZTIRA		4,3
Sexua	Gizonak	7,1
	Emakumeak	1,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

EAEko gazteen % 4,3k kanabisa erre ohi duela aitortzen du, gizonezkoen portzentajea (% 7,1) emakumezkoena baino askoz handiagoa izanik (% 1,6).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

1992 eta 2008 artean, kanabisaren kontsumoak goranzko joerarekin jarraitu zuen gazteen, zein biztanleria totalaren artean eta 2008an ohiko kanabis-erretzaileak direnen tasarik altuenera iritsi zen gazteen artean (% 11). Urte hartatik aurrera, EAEko gazteen eguneroko edo ia eguneroko kanabis-kontsumoa nabarmen murriztu da % 4,3raino. Biztanleria totalaren artean ere murriztu da kontsumoa 2008az geroztik, 2012an % 1,7koa izateraino. Bi taldeen arteko aldea murriztu den arren, kanabisaren kontsumoak bi bider handiagoa izaten jarraitzen du gazteen artean biztanlerian baino (2,5eko ratioa).

5.7. Ohiko kanabis-kontsumoa

Inkesta aurretiko hilabeteen kanabis egunero edo ia egunero (asteen 4 egun edo gehiagotan) erre dutela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Europarekiko alderaketa

Ohiko kanabis kontsumoa (%)	
Alemania	0,9
Austria	0,3
Belgika	2,2
Danimarka	0,7
Espainia	5,0
Finlandia	0,5
Frantzia	3,3
Grezia	0,2
Irlanda	1,8
Italia	1,9
Herbehereak	1,6
Portugal	2,1
Erresuma Batua	1,0
Norvegia	0,2
EAE	4,3

Europako datuak 15 eta 34 urte bitartekoenak dira
EAEkoenak, aldiz, 15 eta 29 urte bitartekoenak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea / Observatorio Europeo de las Drogas y las Toxicomanías (EMCDDA).

2012an, EAEko gazteen ohiko kalamu-kontsumoaren prebalentzia (% 4,3) Espainiakoa baino baxuagoa zen, baina Europako gainerako herrialdeetakoa baino askoz ere altuagoa, datuek erakusten dutenez.

5.8. Interneteko erabilera arazotsua

Internet modu arazotsu batean, Ormanen testaren arabera, erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Test hori 9 itemek osatutako tresna bat da, eta lortutako puntuen arabera bereizten ditu erabiltzaileak ondoko hiru talde hauetan: Arazorik gabeak; Arriskuzko biztanleria; eta Erabilera arazotsuko pertsonak.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 8,3

Taldekako datuak

Interneteko erabilera arazotsua (%)		
EAE GUZTIRA		8,3
Sexua	Gizonak	7,1
	Emakumeak	9,3
Erabilera modua	Arriskuzko erabilera	6,6
	Erabilera arazotsua	1,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Euskadi eta Drogak Seriea

Euskadi eta drogak galdeketako datuen arabera, euskal gazteen % 8,3k gatazkatsua izan daitekeen Interneten erabilera egiten du, Orman-en testaren arabera. Hain zuzen ere, EAEko gazteen % 6,6k erabilera arriskutsua egingo luke eta % 1,7k erabilera gatazkatsua, argi eta garbi. Sexuen arabera, Interneten erabilera gatazkatsuaren tasa altuagoa da emakumeengan (% 9,3) gizonezkoengan (% 7,1) baino.

5.9. Nerabezaroko haurdunaldien tasa

Jaiotzen zenbatekoa gehi haurdunaldien borondatezko etenduren zenbatekoa 15 eta 17 urte bitarteko emakumeen artean adin-tarte bereko 1.000 emakumeko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

9,7 (1.000ko tasa)


Taldekako datuak

Nerabezaroko haurdunaldiak (1000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		9,7
Lurralde Historikoa	Araba	10,8
	Bizkaia	10,2
	Gipuzkoa	8,4
Amaren nazionalitatea	Espainiarra	5,6
	Atzerritarra	43,8

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Nerabezaroko haurdunaldien tasa 15 eta 17 urte arteko 1.000 emakumeen artean 9,7koa da. Lurralde historikoen arabera, tasarik altuenak Arabari (% 10,8) eta Bizkaiari (% 10,2) dagozkie; Gipuzkoak, berriz, tasa txikiagoa du (% 8,4). Nerabezaroko haurdunaldien tasa ia 8 bider altuagoa da nerabe atzerritarren artean (% 43,8) espainiar nazionalitatea dutenen artean baino (% 5,6).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2003. urtetik, nerabezaroko haurdunaldien tasak gora egin du EAEn, gorakada bereziki nabarmena izanik 2003 eta 2007 artean, atzerritarren artean nerabeen gorakadaren ondorioz seguru asko eta, aipatu bezala, horiek haurdunaldi-tasa askoz ere altuagoak erakusten dituzte.

5.10. Suizidioen ondoriozko heriotza tasa

Suizidioen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

3,0 (100.000ko tasa)


Taldekako datuak

Suizidioen ondoriozko heriotza (100.000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		3,0
Lurralde Historikoa	Araba	0,0
	Bizkaia	3,8
	Gipuzkoa	3,1
Sexua	Gizonak	5,2
	Emakumeak	0,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen Erregistroa

Suizidioaren ondoriozko EAEko gazteen heriotza-tasa 100.000 gazteko 3koa da. 2012an, suizidio-tasarik altuena Bizkaian erregistratu zen (3,8), ondoren Gipuzkoan (3,1) eta Araban, berriz, ez zen gazterik suizidatu. Gizonezkoen suizidio-tasa (5,2) emakumezkoena baino askoz ere altuagoa da (0,7).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen Erregistroa

Suizidiogatikoko hilkortasun-tasa 100.000 biztanleko 8,2koa da biztanleriaren artean, hau da, gazteen artean baino bi aldiz handiagoa. Zaila da bilakaera argia nabarmentzea, adierazlean gertatzen diren gorabehera handiak direla-eta.

5.10. Suizidioen ondoriozko heriotza tasa

Suizidioen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

Beste erkidegoekiko alderaketa

Suizidioen ondoriozko heriotza (100.000ko tasa)	
Andaluzia	4,8
Aragoi	6,6
Asturias	2,0
Balear uharteak	4,1
Kanariak	4,8
Kantabria	3,4
Gaztela eta Leon	4,2
Gaztela-Mantxa	2,6
Katalunia	4,5
Valentziako Erkidegoa	4,1
EAE	3,0
Extremadura	4,5
Galizia	6,8
Madrilgo Erkidegoa	0,6
Murtziako Eskualdea	2,6
Nafarroa	2,0
Errioxa	5,9
Ceuta	0,0
Melilla	0,0
ESPAINIA GUZTIRA	3,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen Erregistroa / INE, Defunciones según causa de muerte

Autonomia-erkidegoen arabera, gazteen arteko suizidiogatikoko hilkortasun-tasarik handiena honela banatzen zen 2012an: Galizia (6,8), Aragoi (6,6), Errioxa (5,9), Kanariak (4,8) eta Andaluzia (4,8). Aurkako muturrean zeuden Madril (0,6), Nafarroa (2) eta Asturias (2). EAE tartean kokatzen zen (2,9) eta, nolanahi ere, estatuko batez bestekoaren azpitik (3,9).

Europarekiko alderaketa

Suizidioen ondoriozko heriotza (100.000ko tasa)	
Alemania	7,7
Austria	9,8
Belgika	12,3
Espainia	2,9
Finlandia	21,2
Frantzia	8,0
Grezia	2,0
Irlanda	13,5
Italia	3,5
Luxenburgo	5,2
Herbehereak	6,5
Portugal	3,7
Erresuma Batua	5,9
Suedia	10,3
EB-28	7,4
EAE	2,3

EUSTATen eskuragarri dagoen azken datua 2010koa da.

Iturria: Departamento de Salud del Gobierno Vasco, Registro de mortalidad / EUROSTAT, Estadísticas de Juventud.

2010eko datuen arabera (Eurostaten azken datua) EAeko suizidiogatikoko gazteen hilkortasun-tasa Europar Batasuneko batez bestekoaren (7,4) oso azpi-tik dago. Tasarik altuena Finlandiari (21,2) dagokio eta urrunetik jarraitzen diote Irlandak (13,5) eta Belgikak (12,3). Bestalde, suizidio-tasarik baxuenak hegoaldeko herrialdeei dagozkie: Grezia (% 2), Espainia (% 2,9), Italia (% 3,5) eta Portugal (% 3,7).

OSASUNA

5.11. Trafiko istripuen ondoriozko heriotza tasa

Trafiko-istripuen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

4,7 (100.000ko tasa)


Taldekako datuak

Trafiko istripuen ondoriozko heriotza (100.000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		4,7
Lurralde Historikoa	Araba	4,3
	Bizkaia	5,1
	Gipuzkoa	4,2
Sexua	Gizonak	5,9
	Emakumeak	3,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen Erregistroa

EAEko gazteen trafikogatik heriotza-tasa 100.000 gazteko 4,7an ze-goien 2012an. Heriotza-tasa horrek altuagoa izaten jarraitzen du gizonen kasuan (5,9) emakumeen kasuan (3,4) baino; hala ere, distantzia hori murriztuz joan da azken urteetan. Bizkaia da trafiko istripuen ondoriozko heriotza-tasarik handiena duen lurraldea (5,1), ondoren Araba (4,3) eta, azkenik, Gipuzkoa (4,2).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen Erregistroa

Trafiko istripuen ondoriozko heriotza-tasak beherantz egiten jarraitu du azken hamarkadan, bai gazteen kolektiboan, bai biztanlerian. Dena den, trafiko istripuen ondoriozko heriotza-tasak altuagoa izaten jarraitzen du gazteen artean (4,7) biztanleria totalaren artean baino (3,6) eta bi kasuetan ere gora-kada arina gertatu da 2011 eta 2012 artean.

5.11. Trafiko istripuen ondoriozko heriotza tasa

Trafiko-istripuen ondorioz hildako 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen zenbatekoa adin-tarte bereko 100.000 laguneko.

Beste erkidegoekiko alderaketa

Trafiko istripuen ondoriozko heriotza (100.000ko tasa)	
Andaluzia	3,7
Aragoi	5,2
Asturias	4,7
Balear uharteak	7,1
Kanariak	3,2
Kantabria	1,1
Gaztela eta Leon	6,3
Gaztela-Mantxa	4,2
Katalunia	4,5
Valentziako Erkidegoa	4,5
EAE	4,7
Extremadura	3,0
Galizia	5,6
Madrilgo Erkidegoa	1,1
Murtziako Eskualdea	5,5
Nafarroa	11,8
Errioxa	2,0
Ceuta	0,0
Melilla	0,0
ESPAINIA GUZTIRA	4,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, Heriotzen Erregistroa / INE, Defunciones según causa de muerte

EAEko (4,7) batez bestekoa estatukoaren gainetik dago (4,2) zirkulazioaren ondoriozko heriotza-tasari dagokionean. Tasarik altuenak komunitate hauei dagozkie: Nafarroa (11,8), Balearrak (7,1), Gaztela eta Leon (6,3), Galizia (5,6), Murtzia (5,5) eta Aragoi (5,2). Zirkulazioa-gatik heriotza-tasarik txikienak, aldiz, hauei dagozkie: Ceuta eta Melilla (0), Madril (1,1), Kantabria (1,1), Errioxa (2), Extremadura (3) eta Kanariak (3,2).

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.1. Jarduera artistikoetan partaidetza

Azkeneko urtean ondorengo jarduera artistiko hauetako bat burutu duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa: argazkilaritza, instrumenturen bat jotzea, pintura, dantza, idaztea, bideoegintza, koru batean abestea, teatroa, bertsolaritza, beste arte plastikoak eta beste batzuek.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)


% 42,9

Taldekako datuak

Jarduera artistikoetan partaidetza (%)		
EAE GUZTIRA		42,9
Lurralde Historikoa	Araba	45,9
	Bizkaia	37,9
	Gipuzkoa	49,7
Sexua	Gizonak	38,8
	Emakumeak	47,1
Adin tarteak	15-19	46,9
	20-24	43,3
	25-29	40,0
Jarduera mota	Argazkigintza	19,0
	Idaztea	16,0
	Margolaritza edo marrazketa	13,0
	Musika-tresna bat jotzea	10,0
	Dantza, balleta	9,0
	Bideoak egitea	8,0
	Bestelako ikus-entzunezkoak	6,0
	Beste arte plastikoak	4,0
	Abesbatza edo musika-taldean abestea	4,0
	Antzerkia	2,0
	Bertsolaritza	1,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / Kulturaren Euskal Behatokia, Euskal Herriko kultura-ohiturak, praktikak eta kontsumoa (2007-2008)

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.2. Euskararen lagunarteko erabilera

Lagunartean gehienetan euskaraz edota euskaraz gazteleraz beste hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazte elebidunen (euskaraz nahiko ondo edo zuzen hitz egiten dute) ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 42


Taldekako datuak

Euskararen lagunarteko erabilera (%)		
EAE GUZTIRA		42,0
Lurralde Historikoa	Araba	26,1
	Bizkaia	30,7
	Gipuzkoa	59,3
Sexua	Gizonak	42,0
	Emakumeak	42,0
Adin tartearak	15-19	39,1
	20-24	39,3
	25-29	47,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Euskara dakiten gazteen % 42k lagunekin erabili ohi du. Gipuzkoan erabiltzen da gehien (% 59,3), gero Bizkaian (% 30,7) eta, gutxien, Araban (% 26,1). Adin-tarteen arabera, erabilerarik handiena 25 eta 29 urte arteko gazteei dagokie (% 47,4), gazteen artean, aldiz, portzentajeak behera egiten du.

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Inkesta Soziolinguistikoa

EAEko gazteen euskararen erabilera adiskideekin pixkanaka murrizten joan da, 2004an % 48,5ekoa izatetik 2012an % 42koa izatera.

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.2. Euskararen lagunarteko erabilera

Lagunartean gehienetan euskaraz edota euskaraz gazteleraz beste hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazte elebidunen (euskaraz nahiko ondo edo zuzen hitz egiten dute) ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 42,0

Biztanleria osoarekiko alderaketa

	2004	2006	2008	2011	2012
Gazteak	48,5		45,3		42,0
Biztanleria osoa		64,9		65,0	

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Adiskideen arteko euskararen erabilera handiagoa da biztanleriaren artean (2011n % 65) gazteen artean baino (2012an % 42,0). Adiskideekin euskararen erabilerak gazteen artean behera egin duen arren (% 3,3 jaitsi da 2008 eta 2012 artean), biztanlerian mantendu egin da.

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.3. Irakurtzeko ohitura

Azkeneko hilabeteko aisialdian libururen bat irakurri duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 53,7

Taldekako datuak

Irakurtzeko ohitura (%)		
EAE GUZTIRA		53,7
Lurralde Historikoa	Araba	59,5
	Bizkaia	50,4
	Gipuzkoa	56,3
Sexua	Gizonak	42,8
	Emakumeak	65,1
Adin tarteak	15-19	52,0
	20-24	54,2
	25-29	54,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 53,7k aisian irakurri ohi duela aitortzen du. Araba da portzentajerik handieneko lurraldea (% 59,5), ondoren Gipuzkoa (% 56,3) eta, azkenik, Bizkaia (% 50,4). Emakumeek (% 65,1) gizonek baino (% 42,8) irakurtzeko ohitura handiagoa dute eta ez da adinaren arabera alde handirik sumatzen.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



* Biztanleria totalaren datua 2011koa da.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / Kulturaren Euskal Behatokia, Euskal Herriko kultura-ohiturak, praktikak eta kontsumoa (2007-2008) / Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Encuesta de hábitos y prácticas culturales 2010/2011

Azken urteetan, irakurtzeko ohitura areagotu egin da gazteen artean, 2008an % 45ekoa zen eta 2012an % 53,7koa. Bilakaera positibo hori biztanleria totalaren artean ohikotasunez irakurtzen dutenen portzentaje txikiagoa-rekin erkatzen da, 2008an % 44,7 izatetik 2011n % 40,9 izatera igaro baita.

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.4. Euskaraz irakurtzeko ohitura

Azkeneko hiru hilabeteetan aisialdi, lan edo ikasketen inguruan euskarazko libururen bat irakurri duten 15 eta 29 urte bitarteko biztanle elebidunen (euskaraz nahiko ondo edo zuzen irakurtzen dute) ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 43,2


Taldekako datuak

Euskaraz irakurtzeko ohitura (%)		
EAE GUZTIRA		43,2
Lurralde Historikoa	Araba	48,6
	Bizkaia	42,3
	Gipuzkoa	42,7
Sexua	Gizonak	42,0
	Emakumeak	44,5
Adin tartekak	15-19	64,2
	20-24	35,5
	25-29	31,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazte elebidunen % 43,2k euskarazko liburu bat irakurri du azken hiru hilabeteetan. Portzentaje hori handiagoa da emakumeen artean (% 44,5) gizonen artean baino eta behera egiten du adinean gora egin ahala, hortaz, 15 eta 19 urte arteko gazteak dira euskaraz irakurtzeko ohitura gehien dutenak (% 64,2).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

2008 eta 2012 artean, aisia, lana edo ikasketa arrazoiak direla eta, azken hiru hilabeteetan euskarazko libururen bat irakurri duten gazte elebidunen portzentajea ia ez da aldatu, % 43 inguruan mantendu da.

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.5. Merkataritza elektronikoa

Azkeneko hiru hilabeteetan produktu edo zerbitzuak erosteko edo saltzeko asmoz Internet bitarteko merkataritza-transakzioak egin dituen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa.


Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 36,8

Taldekako datuak

Merkataritza elektronikoa (%)		
EAE GUZTIRA		36,8
Lurralde Historikoa	Araba	40,3
	Bizkaia	35,5
	Gipuzkoa	37,4
Sexua	Gizonak	33,5
	Emakumeak	40,2

Bilakaera sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta

15 eta 29 urte artekoen % 36,8k merkataritza elektronikoa egin zuen 2013an. Emakumeen artean (% 40,2) portzentajea handiagoa da gizonen artean (% 33,5) baino eta lurralde historikoen arabera, Araban egiten da merkataritza elektroniko gehien (% 40,3), ondoren Gipuzkoan (% 37,4) eta, azkenik, Bizkaian (% 35,5).

Iturria: EUSTAT, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta

Merkataritza elektronikoa egiten duten gazteen portzentajea zazpi bider areagotu da 2003 eta 2013 artean, emakume gazteen kasuan % 40,2ra iristeraino.

AISIA, KULTURA ETA KIROLA

6.6. Kirol-jarduera erregularra

Astean 3 aldiz edo gehiagotan kirola egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 40,2

Taldekako datuak

Kirol-jarduera erregularra (%)		
EAE GUZTIRA		40,2
Lurralde Historikoa	Araba	41,4
	Bizkaia	35,5
	Gipuzkoa	47,3
Sexua	Gizonak	50,2
	Emakumeak	29,6
Adin tarteak	15-19	49,3
	20-24	39,2
	25-29	35,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 40,2k kirola egiten du astean hirutan gutxienez. Gizonez-koen kasuan portzentajea % 50,2raino iristen da eta emakume gazteen % 29,6k erregulartasunez egiten du kirola. Adinaren arabera, portzentajerik handiena 15 eta 19 urte arteko gazteei dagokio (% 49,3) eta goragoko adin-tarteetan, berriz, gutxituz doa. Gipuzkoa da kirola erregulartasunez egiten duten gazteen portzentajerik handieneko lurralde historikoa (% 47,3), ondoren, Araba (% 41,4) eta, azkenik, Bizkaia (% 35,5).

BALIOAK ETA JARRERAK

7.1. Poztasun pertsonalaren indizea

Gaur egungo egoera pertsonalari 15 eta 29 urte bitarteko gazteek emandako batez besteko puntuazioa 0 eta 10eko eskalan kontuan izanik 0 Oso gaizki dela eta 10 Oso ondo dela.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

7,2 puntu


Taldekako datuak

Poztasun pertsonalaren indizea (0 eta 10 bitarteko batez bestekoa)		
EAE GUZTIRA		7,2
Lurralde Historikoa	Araba	7,3
	Bizkaia	7,1
	Gipuzkoa	7,3
Sexua	Gizonak	7,1
	Emakumeak	7,3
Adin tarteak	15-19	7,9
	20-24	7,3
	25-29	6,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

Euskal gazteek 10etik 7,2 punturekin baloratzen duten beren egoera pertsonala. Adinean gora egin ahala, poztasun pertsonalaren mailak behera egiten du.

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Emantzipazioa Seriea / Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Euskal Soziometroak Seriea

EAEko gazteen poztasun pertsonalaren indizeak gora egin du azken hamarkadan, 2000. urtean 6,7 puntukoa izatetik 2013an 7,2 puntukoa izatera; hala ere, beherakada gertatu da 2007 eta 2010 artean. Biztanleria orokorraren asebetetzeak ere gora egin du 2000 eta 2013 artean, baina gazteen asebetetze mailak oraindik ere apur bat handiagoa izaten jarraitzen du.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.2. Etorkizunarekiko konfiantza indizea

Adierazle sintetiko honek biltzen ditu 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera pertsonalari, gazteriaren egoerari eta Euskadiko egoerari buruz bost urteko epearen inguruan dituzten itxaropenak.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

63,8 puntu


Taldekako datuak

Etorkizunarekiko konfiantza indizea		
EAE GUZTIRA		63,8
Lurralde Historikoa	Araba	64,1
	Bizkaia	64,0
	Gipuzkoa	63,2
Sexua	Gizonak	62,8
	Emakumeak	64,8
Adin tartekak	15-19	63,4
	20-24	61,9
	25-29	65,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

0 eta 100 artean, gazteek 64 punturekin baloratzen dute etorkizunean duten konfiantza eta horrek nolabaiteko baikortasuna erakusten du. Ez da alde nabarmenik sumatzen lurralde historiko, sexu edo adinaren arabera, baina batez bestekoaren apur bat gainetik daude emakumeak (64,8) eta 25 eta 29 urte arteko gazteak (65,3).

Alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Aurrera Begira Seriea

2013. urtean, gazteek konfiantza handiagoa erakusten dute etorkizunean egoerak hobera egiteko (63,8), 30 urte edo gehiagokoek baino (56,2).

BALIOAK ETA JARRERAK

7.3. Berauen adinean, gurasoak baino egoera hobean daudela adierazten duten gazteak

Berauen adinean, berauen gurasoak baino egoera hobean daudela adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

% 51,1


Taldekako datuak

Berauen adinean gurasok baino egoera hobean (%)		
EAE GUZTIRA		51,1
Lurralde Historikoa	Araba	55,2
	Bizkaia	45,6
	Gipuzkoa	58,5
Sexua	Gizonak	50,8
	Emakumeak	51,4

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea

EAEko gazteen erdiak baino gutxiagok (% 51,1) aitortzen du gurasoek adin bera zutenean baino egoera hobean dagoela. Lurralde historikoen arabera, Bizkaia gai horren inguruko pertzepzio negatiboena izateagatik nabarmendu da (% 45,6); Araban eta Gipuzkoan portzentajeak % 55,2 eta % 58,5ekoak dira, hurrenez hurren.

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Emantzipazioa Seriea, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea

EAEEn adin berean gurasoek zuten egoera baino hobean daudela dioten gazteen kopurua nabarmen jaitsi da 2008az geroztik, urte horretan % 76,8 izatetik 2013an % 51,1 izatera igaro da.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.4. Asoziazionismo tasa

Elkarteren bateko kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 34,1


Taldekako datuak

Asoziazionismo tasa (%)		
EAE GUZTIRA		34,1
Lurralde Historikoa	Araba	46,9
	Bizkaia	25,9
	Gipuzkoa	41,7
Sexua	Gizonak	37,9
	Emakumeak	30,2
Adin tarteak	15-19	35,8
	20-24	34,2
	25-29	33,0
Jarduera mota	Kirol elkarteak	15,0
	Txokoak edo aisialdi elkarteak	8,4
	Musikalak	5,0
	Beste elkarte kulturalak	4,9
	Ikasle-elkarteak	4,4
	Euskararen aldeko taldeak	2,3
	Eskautak, gazte-klubak	2,1
	Sindikatuak	2,1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea

EAEko gazteen % 34,1 elkarteren bateko kide da eta lurraldeen arteko aldeak nabarmenak dira: Arabako tasak (% 46,9) ia bikoiztu egiten du Bizkaikoa (% 25,9). Asoziazionismoa gizonezkoen artean (% 37,9) ere handiagoa da eta beherantz egiten du adinak gora egiten duen heinean. Elkarte mota hauetan hartzen dute parte gehienbat: kirolekoak (% 15), txokoak edo aisialdirako elkarteak (% 8,4), musikalak (% 5), kulturalak (% 4,9) eta ikasle-elkarteak (% 4,4).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea


Gazteen arteko asoziazionismoak 8,2 puntu egin du behera 2000 eta 2012 artean, 2000. urtean % 42,3 izatetik 2012an % 34,1 izatera.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.4. Asoziazionismo tasa

Elkarteren bateko kide diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Lurralde-eremuarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Euskadiko Gazteak Seriea/ INJUVE. Juventud en España 2012 / EUROSTAT.
Youth on the move

Euskal gazteen asoziazionismo-tasa (% 34,1) Espainiako gazteena (% 42) eta EB-27koa (% 52) baino baxuagoa da.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.5. Boluntario-lanak betetzea

Boluntario-lanak betetzen dituen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 6,5


Taldekako datuak

Boluntario lanak betetzea (%)		
EAE GUZTIRA		6,5
Lurralde Historikoa	Araba	6,8
	Bizkaia	5,2
	Gipuzkoa	8,7
Sexua	Gizonak	5,3
	Emakumeak	7,8
Adin tarteak	15-19	4,1
	20-24	9,5
	25-29	5,9

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia. Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 6,5ek boluntariotzako jardueraren bat garatzen du 2012an. Portzentajerik altuena Gipuzkoakoa da (% 8,7), ondoren Arabakoa (% 6,8) eta, azkenik, Bizkaikoa (% 5,2). Emakumeek (% 7,8) gizonetakoek (% 5,3) baino neurri handiagoan egiten dute boluntariotza eta adinaren arabera, 20 eta 24 urteen artean egiten da gehien (% 9,5).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Joerak Seriea

Boluntariotzako jarduerak egiten dituzten gazteen kopurua ia ez da aldatu 2008 eta 2012 artean, aldi horretan % 6,5ekoa izanik.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.6. Politikarekiko interesa

Politikan Oso edo Nahikoa interes duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua(2012)

% 22,5


Taldekako datuak

Politikarekiko interesa (%)		
EAE GUZTIRA		22,5
Lurralde Historikoa	Araba	22,2
	Bizkaia	19,2
	Gipuzkoa	28,2
Sexua	Gizonak	25,5
	Emakumeak	19,5
Adin tarteak	15-19	15,6
	20-24	23,1
	25-29	26,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 22,5 oso edo nahiko interesatuta dago politikarekin; gizonezkoen artean ehuneko hori altuagoa da (% 25,5). Lurralde historikoen arabera, politikan interesa duten gazteen proportziorik handiena Gipuzkoari dagokio (% 28,2), ondoren Arabari (% 22,2) eta, azkenik, Bizkaiari (% 19,2). Adin-tarteen arabera, politikarekiko interes handiagoa antzematen da adinez nagusienak diren gazteen artean (% 26,7), aldiz, 15 eta 19 urte arteko gazteen artean interesa askoz ere txikiagoa da (% 15,6).

Bilakaera eta biztanleria osoarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea eta Gazteen Argazkiak Seriea


2000 eta 2004 artean, politikarekiko interesa oso parekoa zen gazteen eta biztanleriaren artean, baina ondoren, gutxitzen joan da gazteen artean. Hori horrela, 2012an gazteen artean 7,5 puntu (% 22,5) baxuagoa zen politikarekiko interesa biztanleriaren artean baino (% 30). 2008an beherakada gertatu zen eta 2012an berriro ere gorakada izan zen. Hala eta guztiz ere, politikarekiko interesa duten euskal gazteen portzentajeak 2000. urtekoa (0,8ko ra-tioa) baino 10,1 puntu baxuagoa izaten jarraitzen du.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.6. Politikarekiko interesa

Politikan Oso edo Nahikoa interes duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Lurralde-eremuarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España 2012

2012an, politikarekiko interesa zuten gazteen portzentajea handiagoa zen Espainian (% 40,7) EAEn baino (% 22,5).

BALIOAK ETA JARRERAK

7.7. Sinesgabe edo agnostikoak diren gazteak

Sinesgabe, ateo, agnostiko edo axolagabe direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 53,6


Taldekako datuak

Sinesgabe edo agnostikoak diren gazteak (%)		
EAE GUZTIRA		53,6
Adin tartekak	Araba	45,6
	Bizkaia	49,5
	Gipuzkoa	64,0
Sexua	Gizonak	55,8
	Emakumeak	51,1
Adin tartekak	15-19	47,2
	20-24	58,7
	25-29	53,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Euskal gazteen erdiak baino gehiagok (% 53,6) bere burua fedegabe edo agnostiko gisa definitzen zuen 2012an. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du fedegabeen ehunik handiena (% 64), ondoren, Bizkaia (% 49,5) eta, azkenik, Arabak (% 45,6). Sexuen arabera, fedegabeen kopururik handiena gizonezkoen artean dago (% 55,8) eta adinari dagokionez 20 eta 24 urtekoen artean (% 58,7).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea


Gazte fedegabeen edo agnostikoen proportzioak gora egin du nabarmen 1998 eta 2012 artean. 1998an hiru gaztetik batera ez zen heltzen bere burua fedegabe edo agnostiko gisa definitzen zuen gazteen kopurua (% 31) eta 2012an, berriz, bitik bat baino gehiago dira (% 53,6).

BALIOAK ETA JARRERAK

7.7. Sinesgabe edo agnostikoak diren gazteak

Sinesgabe, ateo, agnostiko edo axolagabe direla adierazten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.


Adinarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.

15 eta 29 urte dituztenen artean fedegabe edo agnostikoen proportzioa (% 53,6) askoz ere handiagoa da 30 urte edo gehiago dituztenen artean baino (% 23).

Lurralde-eremuarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Jóvenes, participación y cultura política 2011

Espainiako fedegabe edo agnostikoen kopurua (% 36) EAEn jasotakoa (% 53,6) baino txikiagoa da.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.8. Immigranteak etortzearen gaitzespena

Langile immigranteen etorrera debekatzearen aldeko diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 9,8


Taldekako datuak

Immigranteak etortzearen gaitzespena (%)		
EAE GUZTIRA		9,8
Lurralde Historikoa	Araba	8,4
	Bizkaia	12,8
	Gipuzkoa	5,5
Sexua	Gizonak	11,4
	Emakumeak	8,2
Adin tarteak	15-19	9,8
	20-24	9,8
	25-29	9,8
Jarduera nagusia	Ikasten du	7,8
	Lan egiten du	11,0
	Langabea	13,0
Maila soziala	Altua	20,0
	Erdikoa	8,3
	Baxua	12,1
Nazionalitatea	Espainiarra	10,8
	Atzerritarra	2,1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 9,8 etorkinak sartzearen kontra dago. Lurralde historikoen arabera, gaitzespen handiena Bizkaian ematen da (% 12,8), gero Araban (% 8,4) eta gutxien Gipuzkoan (% 5,5). Hauen artean ere etorkinen sarrera gaitzesten dutenen proportzioa handiagoa da: gizonezkoak (% 11,4), langabezia dauden gazteak (% 13) eta beren burua goi mailako edo behe mailako klasekotzat dutenak (% 20 eta % 12,1, hurrenez hurren).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Etorkinen sarrera gaitzesten duten gazteen kopurua areagotzen joan da pixkanaka 2000. urteaz geroztik –orduan portzentajea % 3,3koa zen–, 2012an % 9,8ra iristeraino.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.9. Abortu libre eta borondatezkoaren sostengua

Abortu libre eta borondatezkoari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 78,9


Taldekako datuak

Abortu libre eta borondatezkoaren sostengua (%)		
EAE GUZTIRA		78,9
Lurralde Historikoa	Araba	73,2
	Bizkaia	78,6
	Gipuzkoa	82,3
Sexua	Gizonak	77,4
	Emakumeak	80,5
Adin tartekak	15-19	76,6
	20-24	82,5
	25-29	77,7
Jarduera nagusia	Ikasten du	80,1
	Lan egiten du	81,9
	Langabea	75,1
Maila soziala	Altua	80,8
	Erdikoa	81,4
	Baxua	70,1
Nazionalitatea	Espainiarra	83,0
	Atzerritarra	48,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazte gehienak (% 78,9) abortu libre eta borondatezkoaren alde daude. Lurralde historikoen arabera, portzentajerik handiena Gipuzkoari dagokio (% 82,3), ondoren Bizkaia (% 78,6) eta txikiena Arabari (% 73,2). Abortu librearen aldeko portzentajerik handiena emakumei (% 80,5) eta 20 eta 24 urte artekoek dagokie (% 82,5).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea


2008 eta 2012 artean, abortu libre eta borondatezkoaren alde egiten duten EAEko gazteen portzentajeak 3,2 puntu egin zituen gora.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.9. Abortu libre eta borondatezkoaren sostengua

Abortu libre eta borondatezkoari sostengua ematen dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Lurralde-eremuarekiko alderaketa



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea / INJUVE, Juventud en España. 2012

Abortu libre eta borondatezkoaren alde egiten duten gazteen portzentajea apur bat altuagoa da EAEn (% 78,9) Espainian baino (% 57).

BALIOAK ETA JARRERAK

7.10. Lana lortzean genero-desberdintasunaren pertzepzioa

Prestakuntza eta esperientzia bera izan arren, lanpostu bat lortzeko mutil batek neska batek baino aukera gehiago duela sumatzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 23,5


Taldekako datuak

Genero-desberdintasunaren pertzepzioa (%)		
EAE GUZTIRA		23,5
Lurralde Historikoa	Araba	26,5
	Bizkaia	23,7
	Gipuzkoa	21,6
Sexua	Gizonak	19,1
	Emakumeak	28,1
Adin tarteak	15-19	23,5
	20-24	21,3
	25-29	25,1
Jarduera nagusia	Ikasten du	23,1
	Lan egiten du	23,4
	Langabea	25,2
Maila soziala	Altua	15,7
	Erdikoa	23,2
	Baxua	27,7

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen ia laurdenak (% 23,5) berdintasunik eza (gizonezkoen alde) antzematen du lanpostu bat eskuratzeko eta portzentaje hori askoz ere handiagoa da emakumeengan (% 28,1) gizonezkoengan (% 19,1) baino. Lurralde historikoen arabera, aldeak daude, Araba izanik berdintasunik ezaren pertzepzio gehien duen lurraldea (% 26,5), ondoren Bizkaia (% 23,7) eta, azkenik, Gipuzkoa (% 19,1). Pertzepzio horrek, gainera, gora egiten du klase sozial subjektiboa zenbat eta baxuagoa izan.

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Lanpostu bat eskuratzeko berdintasunik eza antzematen duten gazteen portzentajea ez da ia aldatu 2008az geroztik, % 23,5 inguruan mantendu da.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.11. Etxebizitzako lanetan dagoen genero-arraila

Egunero batez bestean etxeko lanetan 16 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizon gazteek aritutako astiaren aldea (minututan).

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

16 minutu


Taldekako datuak

Etxebizitzako lanetan genero-arraila (mm)		
EAE GUZTIRA		16
Lurralde Historikoa	Araba	15
	Bizkaia	5
	Gipuzkoa	22

Iturria: EUSTAT, Astiaren Aurrekontuen Inkesta

EAEn etxeko lanetako generoen arteko tartea 16 minutukoa da, hau da, emakume gazteek egunean batez beste 16 minutu gehiago eskaintzen dizkiote etxeko lanak egiteari gizonezkoek baino.

Bilakaera



Iturria: EUSTAT, Astiaren Aurrekontuen Inkesta

Azken 20 urteetan, etxeko lanetako generoen arteko tartea asko murriztu da, bai gazteen, bai biztanleriaren artean, nahiz eta generoen arteko aldeak txikiagoa izaten jarraitzen duen gazteen artean.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.12. Kalean gauez ibiltzearen beldurra

Kalean gauez ibiltzearen beldurra bizi duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 19,4


Taldekako datuak

Kalean gauez ibiltzearen beldurra (%)		
EAE GUZTIRA		19,4
Lurralde Historikoa	Araba	17,7
	Bizkaia	18,7
	Gipuzkoa	21,3
Sexua	Gizonak	7,1
	Emakumeak	32,2
Adin tarteak	15-19	22,2
	20-24	19,1
	25-29	17,7
Maila soziala	Altua	21,5
	Erdikoa	18,3
	Baxua	23,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Euskal gazteen % 19,4k kalean gauez ibiltzeari beldur diola aitortzen du. Sexuen artean dago alderik handiena, % 32,2 emakumeen kasuan eta % 7,1 gizonen kasuan. Adin-tarteen arabera, gauez kalean ibiltzeari beldur dioten portzentajeak behera egiten du adinean gora egin ahala.

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

Gauez kalean ibiltzeari beldur dioten gazteen kopuruak gora egin du arinki; 2008an % 18,1 izatetik 2012an % 19,4 izatera igaro da.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.13. Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa globala

Emakumeen aurkako indarkeriaren salaketarik egin duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen zenbatekoa, adin-tarte horretako 1.000 emakumeko.

Eskuragarri dagoen azken datua (2013)

7,7 (1.000ko tasa)


Taldekako datuak

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa (1000ko tasa)		
EAE GUZTIRA		7,7
Lurralde Historikoa	Araba	7,6
	Bizkaia	8,2
	Gipuzkoa	7,0
Adin tarteak	15-19	6,1
	20-24	8,7
	25-29	8,1

Iturria: Eusko Jaurlaritz, Segurtasun Saila

EAEn 1.000 emakume gazteren artetik ia 8k (% 7,7) salaketa jarri du emakumeen aurkako indarkeria dela-eta 2013. urtean. Lurralde historikoen arabera, tasarik handiena Bizkaian ematen da (% 8,2), gero Araban (% 7,6) eta gutxien Gipuzkoan (% 7). Adin-tartearen arabera, tasarik altuena 20 eta 24 urte arteko gazteetan ematen da (% 8,7), ondoren 25 eta 29 urte artekoetan (% 8,1) eta, azkenik, 15 eta 19 urte arteko gazteetan (% 6,1).

Bilakaera



Iturria: Eusko Jaurlaritz, Segurtasun Saila

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra gazteen artean altuagoa da (% 7,7) biztanleriaren artean baino (% 3,4), hau da, bikoitza baino gehiago da (2,3ko ratioa). 2009. urteaz geroztik, emakumeen aurkako indarkeriaren tasari dagokionez ez da aldaketa handirik izan, ez gazteen kasuan, ez biztanleria totalaren kasuan, gorabehera batzuk izan diren arren.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.14. Garraio publikoen ohiko erabilera

Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako garraio publiko kolektiboa erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 37,2


Taldekako datuak

Garraio publikoen erabilera (%)		
TOTAL		37,2
Lurralde Historikoa	Araba	21,8
	Bizkaia	44,4
	Gipuzkoa	32,9
Sexua	Gizonak	32,9
	Emakumeak	41,8
Adin tarteak	15-19	48,3
	20-24	28,5
	25-29	22,9
Ikasketa maila	Oinarrizkoak	42,0
	Bigarren hezkuntzakoak	43,0
	Goi mailakoak	29,7
Jarduera nagusia	Ikasten du	33,5
	Lan egiten du	45,9
	Langabea	33,1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 37,2ak garraio publiko kolektiboa erabili ohi du. Portzentajerik handiena Bizkaikoa da (% 44,4), ondoren Gipuzkoakoa (% 32,9) eta, azkenik, Arabakoa (% 21,8). Garraio publikoaren erabilerarik handiena hauek egiten dute: emakumeek (% 41,8), gazteenek (% 42-43) eta ikasleek (% 48,3).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

2008 eta 2012 artean, garraio publiko kolektiboa egunero edo ia egunero erabiltzen zuten gazteen portzentajeak gora egin zuen, 2008an % 33,4 izatetik 2012an % 37,2 izatera.

BALIOAK ETA JARRERAK

7.15. Garraiorako bizikletaren ohiko erabilera

Eguneroko edo ia eguneroko joan-etorrietarako bizikleta erabiltzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

Eskuragarri dagoen azken datua (2012)

% 9,6


Taldekako datuak

Bizikleta erabilera (%)		
TOTAL		9,6
Lurralde Historikoa	Alava	17,2
	Bizkaia	2,1
	Gipuzkoa	18,1
Sexua	Gizonak	13,0
	Emakumeak	6,0
Adin tartekak	15-19	11,6
	20-24	6,6
	25-29	10,2
Ikasketa maila	Oinarrizkoak	11,3
	Bigarren hezkuntzakoak	10,0
	Goi mailakoak	8,2

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

EAEko gazteen % 9,6ak bizikleta erabili ohi du joan-etorrietarako. Egoera hori oso desberdina da, ordea, hiru lurralde historikoetan: portzentajerik handienak Gipuzkoan eta Araban jasotakoak dira (% 18,1 eta % 17,2, hurrenez hurren) eta Bizkaian, berriz, portzentajea askoz ere txikiagoa da (% 2,1). Hauek erabiltzen dute bizikleta gehien: gizonak (% 13), 15 eta 19 urte artean dituztenek (% 11,3) eta ikasleek (% 11,6).

Bilakaera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Gazteak Seriea

2008 eta 2012 artean, bizikleta joan-etorrietarako erabili ohi duten gazteen portzentajek gora egin zuen nabarmen, 2008an % 5,3 izatetik 2012an % 9,6 izatera igaro zen.



4

DATU BASE INTERAKTIBOA

Gazteen adierazleak 2013 argitalpenak on line dagoen datu base handia kontsultatzeko aukera eskaintzen du lehenengoz. Base horretan Euskadiko gazteen ikuspegi hau osatzen duten 111 adierazleen informazioa dago eskuragarri.

On line aplikazio honek taulak, grafikoak eta mapa interaktiboak sortzeko aukera ematen du, baita berauek sortzeko hainbat aldagai aukeratzeko modua eta eremu geografikoen (EAE, Espainia eta Europa) arteko alderaketa ere egin. Bertan sortutako informazioa beste programa batzuetan ere erabil daiteke.

Gazteen adierazleak 2013 zazpi ataletan banatzen da. Atal bakoitzak bere aginte-mahai propioa du eta dagokien estekaren bidez jotzen da bertara.

01. Demografia eta biztanleria

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_biztanleria/eu_def/index.shtml

02. Hezkuntza

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_hezkuntza/eu_def/index.shtml

03. Enplegua eta egoera ekonomikoa

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_enplegua/eu_def/index.shtml

04. Emantzipazioa eta etxebizitza

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_emantzipazioa/eu_def/index.shtml

05. Osasuna

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_osasuna/eu_def/index.shtml

06. Aisia, kultura eta kirola

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_aisia/eu_def/index.shtml

07. Balioak eta jarrerak

http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/behatokia_tableu_balioak/eu_def/index.shtml

